

IGOGAILUEN INSTALAZIOA ETA MANTENTZE-LANA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN

Azterlan juridiko-ekonomiko eta lehiakoa

IGOGAILUEN INSTALAZIOA ETA MANTENTZE-LANA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN

Azterlan juridiko-ekonomiko eta lehiakoa

Vitoria-Gasteiz, 2008



OSASUN ETA HERRI
ADMINISTRAZIO SAILA
DEPARTAMENTO DE HACIENDA
Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

Eusko Jaurlaritza Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke:
<http://www.euskadi.net/ejgvbiblioteca>

Erredakzio taldea: Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzua
Iñaki Beristain Etxabe
Jaione Aberasturi Erezuma
Guillermo Aranzabe Pablos
Zorione Garitano Azkarraga
Ainara Herce San Martín

Egileak: Iñigo Artebe, Ikertalde
Carlos Padrós, Universitat Autònoma de Barcelona

Argitaraldia: 1.a, 2008ko abendua

Ale-kopurua: 500

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Ogasun eta Herri Administrazio Saila

Internet: www.euskadi.net

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Autores:

Diseinu grafikoa: Miren Unzurrunzaga Schmitz

Fotokonposaketa: Composiciones RALI, S.A.
Particular de Costa, 8-10, 7ª - 48010 Bilbao

Inprimaketa: Estudios Gráficos ZURE, S.A.
Carretera Lutxana-Asua, 24-A - Erandio-Goikoa (Bizkaia)

ISBN: 978-84-457-2835-2

Lege gordailu: BI-3695-08

AURKIBIDEA

1. SARRERA	9
2. ESKAINTZA-ESKAERAREN ANALISIA	15
2.1. Eskaintzaren ikuspegia: oinarrizko elementuak	17
2.2. Eskaeraren ikuspegia: oinarrizko elementuak	21
2.3. Eskaintzaren eta eskaeraren arteko kontrastea	22
3. INDARREAN DAGOEN LEGEDIA	25
3.1. Euskal Autonomia Erkidegoak industria segurtasunaren eta industria kalitatearen sektorean dituen eskumenak	27
3.2. Sektorearen erregulazioa	29
3.2.1. Euskal Autonomia Erkidegoak azaroaren 12ko 8/2004 Euskal legea, industriari buruzkoa	29
3.2.2. Martxoaren 14ko 63/2006 Dekretua, norbanakoaren prestakuntzako txartelak eta segurtasun industrialaren gaitan baimendutako enpresak arautzen dituena	31
3.2.2.1. Norbanakoaren prestakuntzarako txartela	31
3.2.2.2. Enpresa baimenduak	32
3.3. Igogailuen gaineko araudia	33
4. MERKATU GARRANTZITSUAK	37
5. MERKATU LEHIAKORRARI BURUZKO AZTERKETA	43
5.1. Estatuko merkatua: hainbat datu	45
5.2. Sektorearen egoera EAE-n	46
5.2.1. Instalazioaren merkatua: dimentsionamendua eta bilakaera	46
5.2.2. Mantentze eta konpontze lanen merkatua: dimentsionamendua eta bilakaera	49
5.2.3. Igogailuen merkatua EAE-n	51
5.3. Sektoreko eskaintzaren kontzentrazioa eta integrazioa	52
5.3.1. Instalazioaren eta mantentze merkatuko operadoreak EAE-n	52
5.3.2. Merkatuko kuotak instalazioan	55
5.3.3. Merkatuko kuotak mantentze eta konpontze lanetan	57
5.3.4. Merkatuko kuotak eta dimentsio ekonomikoa. bi merkatu garrantzitsuenen fusioa	58
5.3.5. Mantentze kontratuak faktore estrategiko gisa	59

6. LEHIA ASKEAK DITUEN OZTOPOEI BURUZKO ANALISIA	61
6.1. Instalazioaren eta mantentze lanaren arteko integrazio bertikala	63
6.2. Merkatuan sartzeko oztopoak	66
6.2.1. Legearen arlokoak	66
6.2.2. Tekniko eta ekonomikoak	68
6.2.3. Merkatuan dagoeneko posizio finkoa lortu duten enpresen ondorioz sortutakoak .	70
6.3. Beste alderdi batzuk	72
7. ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK	75
7.1. Kontsiderazio orokorrak	77
7.2. Instalazioa	78
7.3. Mantentzea	79
7.4. Proposamenak	82
8. BIBLIOGRAFIA AIPAGARRIA	85
1. ERANSKINA	89

AURKIBIDEA. KOADROAK ETA GRAFIKOAK

2. ESKAINTZA-ESKAERAREN ANALISIA

2.1. koadroa.	KBE erakundeen merkatua EAEn	20
2.1. grafikoa.	Enpresa motak	19
2.2. grafikoa.	Instalazio eta Mantetze-lanaren merkatuen eskaeraren osaketa	21
2.3. grafikoa.	Eskaintza eta eskaeraren elkarrekintza	22

3. INDARREAN DAGOEN LEGEDIA

3.1. koadroa.	Industria-segurtasuna eta kalitatea	30
---------------	---	----

5. MERKATU LEHIAKORRAREN ANALISIA

5.1. koadroa.	Espainiako igogailuen salmenta eta instalazioaren merkatua	45
5.2. koadroa.	EAEko igogailu-kopuruak (2006ko abenduaren 31 bitarte)	47
5.1. grafikoa.	EAEko igogailuen banaketa lurraldeka	47
5.3. koadroa.	EAEn instalatutako igogailuen historikoa (urteko batez bestekoa)	48
5.4. koadroa.	Instalazioaren merkatua EAEko lurralde historikoetan, unitate fisikoetan adierazita	49
5.5. koadroa.	Instalazioaren merkatu estimatua EAEko lurralde historikoetan, diru-unitateetan adierazita	49
5.6. koadroa.	Kontserbatze- eta mantentze-merkatua EAEko lurralde historikoetan	50
5.7. koadroa.	Kontserbatze- eta mantentze-merkatu estimatua EAEko lurralde historikoetan (konponketak barne), diru-unitateetan adierazita	51
5.8. koadroa.	Sektoreko partzialen laburpena lurralde historikoaren arabera. 2006. urtea	51
5.9. koadroa.	Instalazioaren eta kontserbazioaren operadoreak EAEn. 2006. urtea	52
5.10. koadroa.	EAEko mantentze-merkatuaren enpresa-kopuruaren bilakaera. 2006-2007	54
5.11. koadroa.	EAEko enpresa instalatzaileak 2006. urtean. Merkatuko kuotak	55
5.12. koadroa.	Herfindahl-Hirschman kontzentrazio mailak, lurraldeen arabera (10.000 oinarriaren gainean)	56
5.13. koadroa.	Enpresa mantentzaileak eta konpontzaileak EAEn 2007. urtean. Merkatuko kuotak	57
5.14. koadroa.	Herfindahl-Hirschman kontzentrazio mailak, lurraldeen arabera (10.000 oinarriaren gainean)	58

5.15. koadroa.	Instalazioaren (2006) eta mantentzearen (2007) merkatuak agregatzen sortutako merkatuko kuota	59
6.	LEHIA LIBREAK DITUEN OZTOPOEI BURUZKO ANALISIA	
6.1. koadroa.	Posizionamendua instalazioaren eta mantentze-lanen merkatuetan, lurralde historikoaren arabera	65
6.2. koadroa.	Mantentze-merkatuaren kuota	67

SARRERA

1. SARRERA

Igogailuen sektorea igogailuak eta makineria produzitzen duen industria-jarduera da. Tresna horiek muntatu eta instalatu egin behar dira, eta gerora mantentze-lanaren beharra izaten dute. Instalazio eta mantentze-lanen jarduera horiek burutzeko administrazioaren baimena behar da, baita segurtasunarekin zerikusia duten industria arauak betetzea ere. Horiek horrela, alde batetik, industria-jardueraren beraren zatitza hartzen dira (horregatik jarduera burutzeko baimena eskuratu eta erregistroa egin behar dira), eta, beste bate-tik, segurtasun eta industria-kalitatearen inguruko prozesuen erantzukizun erregimenean esku hartzen dute. Beste hitz batzuetan esateko, instalazio eta mantentze-lana burutzen duten enpresak ez dira besterik gabe beste jarduera ekonomiko bat gehiago, aitzitik, adierazi beharra dago industria segurtasun eta kalitatea burutzerakoan oinarritzko pieza direla.

Testuinguru horretan, igogailuen instalazioak eta mantentze-lanak egiteko legeak ezarritako baldintza zorrotzak bete behar dira. Lehenengo eta behin, mantentze-lana egiteko eskaera nahitaez merkatuak berak egin behar du (arazko mantentze-lana egiteko beharra). Bigarrenik, operadoreen jarduerak baimena ematen duen prozedura administratiboan ezarritako hainbat kontrol gainditu behar ditu. Legezko konfigurazio horrek dituen berezitasun nabarmen horien aurrean (derrigortasuna eta merkatuan sartzeko oztopoak) prezioen mekanismoa ez dago arautua.

Instalazio eta mantentze-lana burutzen duten enpresen jarduerak funtsean bi azpisektoreren inguruan gauzatzen dira: ohiko instalazio eta mantentze-lana eta igogailu bakoitzaren araudi erregulatzailerak ezarritako industria segurtasuneko betebeharen arazko kontrola Kontrolerako Baimendutako Erakundeek (KBE) egiten dutena. Horiek horrela, lehenengo kasuan, garrantzitsuenak merkatuaren egituraren inguruko alderdiak diren bitartean (merkatuen tamaina, fabrikatzailearen eta mantentze-lanak egiten dituen enpresaren arteko integrazio bertikala, nagusitasun posizioa, lurralde banaketa eta abar), bigarren kasuan, merkatuan sartzekoan aurkitzen diren oztopoak azpimarratu behar dira (baimena lortu behar da, «*market contestability*» edo beste erkidego batzuetatik etorritako operadoreak sar litezke, prezioak ezartzeko sistema, eta abar). Nahiz eta bi sektoreak garrantzi handikoak izan, *Euskal Autonomia Erkidegoan igogailuen instalazioa eta mantentze-lanen sektorearen inguruko azterketa* honen ardatza horietako lehenengoa izango da, hau da, ohiko instalazioa eta mantentze-lanak eta helburutzat du lehiari dagozkion oztopoak aztertzea eta azterketa horri helduta hainbat ekintza proposatu beti lehiaren ikuspuntutik abiatuta.

Tradizioz instalazioa eta mantentze-lana produktu merkatutzat ulertu izan dira, eta geografikoki begiratuta ezberdinak direla kontsideratu izan da. Hori horrela, mantentze-lanean lehiak izan zitzakeen balizko murrizketek ez zuten zerikusirik izaten instalazioaren merkatuak zuen egiturarekin. *Azterketa* honen analisi zehatzago batek (ORONA/ASCENSORES GASTEIZ kasuan emandako ebazpenaren ondorioz lehiaren inguruko estatuko agintariak hartutako ebazpenak ere antzeko ondorioak eman zituen) bi merkatuak harremanetan jartzea ahalbidetzen du, baita bien arteko integrazio bertikalaren efektuak aztertzea ere. Horregatik guztiagatik, aztertu beharra dago instalazio eta mantentze-lanen merkatuak bi merkatu independentetzat hartzen dituen tradiziozko ikuspegiari jarraitu behar zaion, ala ikuspegi hori baztertu ote den eta lotura duten merkatutzat hartzen ote diren.

Horretaz gain, igogailuen legedi espezifikoa ere mesedegarri gerta daiteke integrazio bertikalarentzat, igogailuak Igogailuen Erregistroan (RAE) inskribatu ahal izateko mantentze-kontratua sinatzeko eskatzen baitu. Beste alde batetik, sektore honetako legedian ez dago ezarrita instalatzailea-fabrikatzailea eta mantentzailea independenteak izateko betebeharririk, eta igogailuaren berme klausulak mesedegarriak izan litezke dinamika horretarako.

Jardueraren bilakaera teknologiko eta konpetitiboari kasu eginez gero, neurri handi batean, Europar Batasunaren eremuan ezarritako ereduari jarraitzen diona, zalantzarik gabe, bilakaera horrek sektorearen transformazioa ekarri du, zeharkako efektuak sortuta, bideragarriak diren eta gutxieneko tamaina duten enpresak, esaterako, baita, ondorioz, eragindako kontzentrazioa ere. Igogailuen sektorearen kasua ez da bakarria, dinamika hori bera beste jarduera eremu askotan ere ematen baita.

Besteak beste, kontsiderazio horiek azterketa hau egitea eragin dute. Eskaintza eta eskaera eta bien arteko korrelazioa jaso ondoren legedia aztertu da, Euskadiko Komunitate Autonomo honen eskumenak gauzatzearen aldetik arreta berezia eskainiz. Hori abiapuntu, merkatu garrantzitsuak zehaztu eta, besteak beste, azaldu dira sektorearen eskaintzaren kontzentrazioa eta integrazioa, ostean alderdi hauetan sakontzeko: integrazio bertikala, merkatuan sartzeko oztopoak eta prezioen formazioa. Hori guztia kontutan hartuta hainbat proposamen luzatzen dira honako lau lan jarduera hauetan: lanerako kontratuak, mantentze-bezeroak kontratua aukeratzeko gaitasuna, baimen administratiiboak eta teknologiaren alorreko oztopoei aurrea hartzea.

Azterketa hau egin ahal izateko hainbat erakunde eta instituziok eskainitako informazioa eta elkarlana baliatu da: Eusko Jaurlaritzaren Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren Industria Segurtasunerako Zuzendaritza, Finken Administrazioailean Elkargoak, sektore honetako elkarteak, erakunde laguntzailerak eta hainbat enpresa. Lan honetan azaltzen diren tesiak horiek emandako informazioan oinarritzen dira.

Denei eskerrak eman nahi dizkiegu, eta, nolana ere, adierazi nahi dugu azterketa honetan azaltzen diren tesiak eta konklusioak txostenaren egileei baino ez dagozkiela.

Era berean, hainbat iturri estatistiko baliatzeaz gain, ausaz 37 mantentze-kontratu aukeratu dira eta horien azterketa sakona egin da, ondorengo oinarritzko alderdiak ezagutzea ahalbidetzen duen analisisa egiteko aukera izateko: prezioa, iraupena, deuseztatzeko klausulak eta abar.

ESKAINITZA-ESKAERAREN ANALISIA

2. ESKAINTZA-ESKAERAREN ANALISIA

Analisiaren abiapuntu gisa, hasierako kapitulu honetan sektorearen oinarritzko ezaugarriak aurkeztuko dira, eskaintza eta eskaeraren ikuspegitik.

2.1. Eskaintzaren ikuspegia: oinarritzko elementuak

Teoria mailan bada ere, igogailuen sektorearen balio katea definitzeko garai- an hiru fase bereiz daitezke, fabrikazioa/instalazioa/mantentze-lana hain zuzen ere, baina, praktikan merkatuan jarritako produktuak fabrikazioa eta instalazioa integratzen ditu. Hori Europako Parlamentuaren eta kontseilua- ren 95/16/CE Zuzentarauak, 1995eko ekainaren 29koa, Estatu kideen igo- gailuei buruzko legediak bateratzekoa, jasotzen du, instalazioa produktu gisa hartuta:

- *«igogailu baten instalatzailea da igogailua diseinatu, fabrikatu, instalatu eta merkatuan jartzeko erantzukizuna bere gain hartzen duten pertsona fisiko edo juridikoa, «CE» markatzailea jartzen duena eta adostasuneko «CE» izendape- na sinatzen duena».*
- *«igogailua merkatuan jarri dela esaten da instalatzaileak igogailua lehenengo aldiz erabiltzailearen eskura jartzen duenean».*

Fabrikazioaren izaera gutxi-asko integralak, produkzio propio edo hirugarren batzuek hornitutako elementuen muntaia gisa ulertuta, garrantzia galtzen du eta igogailuaren instalazioa eta merkaturatzea da garrantzia hartzen duena, horrek dakarren guztiarekin.

Fabrikatzaile/instalatzaileak (aurrerantzean instalatzailea izendatuko duguna), beraz, segurtasunerako eskatutako oinarritzko arauak betetzeko erantzukizuna du, bidezko segurtasun elementu guztiak erabilia, eta, azkenik, baita igogai- lua abian jarri aurretik «CE markatzailea» jarri eta adostasuneko «CE izendapena» sinatzeko erantzukizuna ere.

Indarrean dagoen legediaren arabera, zerbitzuan jarri aurretik nahitaezkoa da igogailu guztiek mantentze-kontratua izatea. Jarduera hori instalaziotik bereiz daiteke, bai eduki aldetik bai instalazioaren balizko hornitzaile gisa hartuta, baina instalatzailea eta mantentzailea pertsona bera izan daitezke.

Tradizioz¹ bi merkatu desberdin daudela ulertu izan da:

1. **Igogailuen fabrikazioa, salmenta eta instalazioa.** Merkatu honek igogailuen fabrikazioa, muntaia, merkaturatzea, instalazioa eta abian jartzearekin zerikusia duten jarduerak biltzen ditu.

Aipatutako jarduera horiek guztiak desberdinak dira, eta eskaeraren ordezkagarritasun irizpidearen arabera, behar desberdinei erantzuten diete, eta, hasiera batean behintzat, era independentean burutu daitezke.

Fabrikazio eta salmenta/instalazio-jarduerak enpresa berak egin ditzake (badira beren banaketa egitura propioaren bidez beren igogailuak merkaturatzen dituzten fabrikatzaileak). Horregatik, ez da ohikoa bi jarduera horiek merkatu berezizat hartzea. Hala eta guztiz ere, osagaiak fabrikatu zituen enpresa ez den hirugarren enpresa batek amaierako bezeroari sal diezaioke makina bere horretan. Kasua hori baldin bada, zenbaitetan, operadore horiek fabrikatzailearen agente edo azpikontratatu gisa jardun dezakete. Hala eta guztiz ere, beste batzuetan, igogailuak hornitu baino ez dute eginen, fabrikatzailearena ez den beste marka edo merkatu izen desberdin bat erabilia. Kasu horietan guztietan saltzaileak bezeroarekin zuzenean hartzen ditu bere gain igogailua abian jartzera bideratutako jarduera guztiak, instalazioa barne, azken jarduera hori fabrikatzailearen edo saltzailearen beraren langileek egin badezakete ere.

Lehiaren defentsarako estatuko agintarien arabera, geografikoki merkatu honen izaera estatala da.

2. **Igogailuen mantentze- eta konpontze-lana.** Merkatu honek igogailuak ikuskatzearekin eta horien funtzionamendu zuzenarekin zerikusia duten jarduera guztiak hartzen ditu, baita igogailua konpontzeko lanak ere, legez ezarritako epe guztien arabera.

Lehiaren defentsarako estatuko agintarien arabera, geografikoki hitz egin da merkatu hau probintziala da, eta, are gehiago, eremu txikiagoetara ere muga liteke.

Hori horrela da mantentze- eta konpontze-jardueraren beraren ezaugarriengatik; izan ere, jarduera honek eskatzen du zerbitzuak babesteko beharrezko igogailutik gertu egotea, kalitatezko zerbitzua eman ahal izateko, eta, batez ere, matxuraren abisua jaso ondoren ahalik eta azkarren erantzun ahal izateko.

Nolanahi ere, bi segmentu horiek, aipatutako bi jarduera horietako bakar bat edo biak batera bere gain hartzen dituzten enpresek burutu ditzakete.


¹ Izandako Lehiaren Defentsarako Zerbitzua, LDZ, orain Lehiaren Batzorde Nazionala, LBN: N-03007 ZARDOYA OTIS/INAPELSA eta N-04094 ZARDOYA OTIS/ELECTROMECHANICA CAM espedienteak. N-05050 ORONA/ELECTRA txostena. N de la Competencia, CNC TDC: 316/1992 CASTELLANA DE ASCENSORES/ZARDOYA OTIS-GIESA SCHINDLER espedientea.

Ondorioz, instalazio eta mantentze-jardueretan diharduten hiru enpresa mota bereiz daitezke:

- I. mota: Igogailuak fabrikatu, muntatu eta instalatzen dituzten enpresak².
- II. mota: Igogailuen mantentze-lanean diharduten enpresak³.
- III. mota: Igogailuak fabrikatu, muntatu eta instalatu eta horien mantentze-lanetan diharduten enpresak.

Eskaintzaileak ez dira nahitaez balio katearen hiru maila horiekin bat etortzen. Hori horrela, fabrikatzaileak salmenta mailan beren kanal propioen bidez presente egoten diren bitartean, salmenta eta instalazio mailetan fabrikazioan aritzen ez diren enpresan egoten dira, eta, beste alde batetik, gerta daiteke salmenta eta instalazio jarduerarik burutzen ez duten mantentzaileak izatea, ez erregulartasunez behintzat.

Horretaz gain, mantentze-lana ez da salmentaren merkatutik eratorritako segmentua soilik; izan ere, hasiera batean eta zenbait zehaztapen eginda, enpresa mantentzaileek edozein fabrikatzailek egindako igogailuetan mantentze- eta konpontze-lanak egiteko beharrezkoak diren inputetarako sarbidea dute (piezak, ezaguera teknikoak), enpresak salduak izan ala ez.



Iturria: Bertan prestatutakoa.

Igogailuak instalatu eta horietan mantentze-lanak egiteko merkatuaren azterketak, esku artean dugun analisiaren helburuetarako, bi merkatuen inguruko azterketa egitea eskatzen du, baita horrek dakarren ikuskatzearekin lotura duen erregulazio profesionalari hurbiltzea ere.

² 1314/1997 Errege Dekretuak indargabetu egin zituen 2291/1985 Errege Dekretuak enpresa hauek erregistro espezifikoko batean inskribatzearen inguruan planteatzen zituen betebeharrak administratiboak, baita enpresa horietako langileen kualifikazioari buruzkoak ere.

³ 2291/1985 Errege Dekretuak instalazio eta mantentze-lanak burutzearen inguruan ezarritako eskakizunak indarrean daude (Lurralde Erregistroak). Hala eta guztiz ere, horien ezaugarriak kontuan hartuta ezin dira merkatuan sartzeko oztopatzat hartu.

Hori horrela, igogailuek bi kontrol mota gainditu behar dituzte: alde batetik, aldiaren behin egin beharreko mantentze-lan pribatua, eta, bestetik, administrazioaren erakunde laguntzaileek egiten duten ikuskatze publikoa.

Hain zuzen ere, instalazio eta mantentze-lanaren osagarri, segurtasun industrialaren alorrean baimenduta dauden enpresek prebentziorako arauzko ikuskatzeak burutzen dituzte: Kontrolerako Baimendutako Erakundeek (KBE). Igogailuak instalatu eta horien mantentze-lanak egitea erregulatzen duen Araudiaren arabera⁴ (19. artikulua), ITC MIE AEM-1 (16.1.3 atala) Jarraibide Tekniko Osagarrietan garatua, igogailu guztiei aldiaren behin ikuskatze ofiziala egin behar zaie, legeak ezarritako epeetan⁵.

Jarraian, argibideak emateko helburuarekin, 2006. urtean Euskadiko Autonomi Erkidegoan (aurrerantzean EAE) lanean ziharduten KBE erakundeen zerrenda emango da, baita horietako bakoitzari dagokion merkatuko kuota ere. EAEko merkatuaren protagonistak Estatuko merkatuan ere protagonistak ziren erakunde berak dira.

2.1. koadroa					
KBE erakundeen merkatua EAEen					
KBE (Kontrolerako baimendutako erakundea)	2006. urtean igogailuetan egindako ikuskatzeak				Kuota EAEen
	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Guztira	
SOCOTEC	380	889	1.036	2.305	%26
ATISAE	593	722	933	2.248	%25
AP+NORCONTROL	417	1.319	228	1.964	%22
INTECA	144	597	683	1.424	%16
ICI	108	298	88	494	%5
SCI	0	23	183	206	%2
SGS	10	4	192	206	%2
TÜV	1	115	1	117	%1
EUROCONTROL	0	24	6	30	%0
B. VERITAS	0	0	0	0	%0
ECA	0	0	0	0	%0
LEIA	0	0	0	0	%0
LLOYD'S REG.	0	0	0	0	%0
GUZTIRA	1.653	3.991	3.350	8.994	%100

Iturria: Eusko Jaurlaritzak. Industria, Merkataritza eta Turismo Saila. Bertan prestatutakoa.

Lurraldeka egindako ikuskatze kopurua bat dator igogailu kopuruarekin.

⁴ 2291/1985 Errege Dekretua, azaroaren 8koa, Igogailuak jarri eta mantentzeko Araudia onartu zuena.

⁵ Igogailu eta karga-igogailuetan ikuskatzeak egiteko epeak:


- Industrialak eta publikoarentzako sarbidea duten lokalak: 2 urtetik behin.
- 20 etxebizitzatik gorako eraikinak edo 4 geldialditik gora eskaintzen dituztenak (hasieran igogailuan sartzekoa bane): 4 urtetik behin.
- Gainerako igogailuak: 6 urtetik behin.

2.2. Eskaeraren ikuspegia: oinarritzko elementuak

Eskaintzaren esparrua osatzen duten instalatzaileekin eta mantentze-lanetan diharduten enpresekin batera, eskaeraren ikuspegia ondorengoek osatzen dute:

- Instalazioaren merkatuan batez ere enpresa eraikitzaileak (obra berriak egi-tea) ditugu, eta bigarren maila batean etxejabeen elkarteak (berritze-lanak); eta familia bakarrentzako etxebizitzak erosten dituzten partikularrak.
- Konpontze- eta mantentze-lanen merkatuan eskaera batez ere etxejabeen elkarteekin du lotura. Eskaera horren ezaugarri nagusia da prezioarekiko malgutasun eza eta zerbitzuaren kalitateari buruzko balorazio eza (ez da gorabeherarik izaten).

Eskaeran beste hainbat irudi osagarri esku hartzen dute, arkitektoek esate baterako, zenbaitetan horiek ere beren erabakiak hartzen baitituzte alor honetan.




Iturria: Bertan prestatutakoa.

Salmentaren eskaera (funtsean enpresa sustatzaileak eta etxebizitzak eraikitzen dituzten enpresak), ehuneko handi batean, mantentze-lanen eskaeraren oso bestelakoa da, horiek etxebizitzetarako erabilera duten finkak direnean eraikinaren kudeaketa eta mantentze-lanaren erantzukizuna baitute, etxejabeen elkarteak esaterako, edo horretarako berariazko eskumena izanez gero, finkak administratzen dituzten kanpoko administratzaileak, edo, etxebizitzetarako erabilera ez duten eraikinak direnean, enpresa eta administrazio publikoak.

2.3. Eskaintzaren eta eskaeraren arteko kontrastea

Eskaintzaren eta eskaeraren arteko eragin-trukearen prozesuak arestian aipatutako aktore horiek guztiak konbinatzen ditu. Ondorengo eskeman horren berri ematen da:



Iturria: Bertan prestatutakoa.

Eskaintzen den produktu/zerbitzuaren ezaugarriak asko aldatzen dira instalazio batetik bestera. Instalazioa baldintzatzen duten eraikuntza ezaugarrietatik hasita, produktuaren ezaugarri estetiko eta funtzionaletaraino, aldagai aukera handia dago, eta aldagai horiek igogailuaren beraren eta instalazioaren prezioa zein mantentze-lanaren prezioa baldintzatu eta desberdinak izatea eragiten dute.

Hori horrela izanik, oro har enpresek ez dute ez tarifa estandarrik ez eskaintza taularik izaten; aitzitik, aurrekontu espezifiko eta aldakorrek egiten dira normalean.

Nolanahi ere, prezioen politika baldintzatzen duten ezaugarri objektibo horietatik haratago, instalazioaren kasuan pentsatzekoa da oso maila eta garrantzi estrategiko desberdina duten amaierako bi bezero mota daudela:

- Nagusia eta egonkorra dena –enpresa motakoa–, igogailua etxebizitzetarako erabileran duten sustapen berrietan instalatzearekin lotutakoa.
- Eta bigarren bat, minoritarioa eta puntuala –etxejabeen elkarteak–.

Hori dela eta, enpresa instalatzaileek komertzializazio politika desberdinak burutzeko aukera izaten dute.

Eta mantentze-lanen prezioei dagokienez, pentsa liteke instalatzaileak⁶ aurkituko dituen egoerak oso bestelakoak izango direla jarduera honetan soilik aritzen diren operadoreek aurkitzen dituztenekin alderatuz gero, eta horrek mantentze-lanaren komertzializaziorako politika desberdinak aurrera eramatea ahalbidetuko diola.

Mantentze-lanetan eskaintzak eta eskaerak duten eragin-trukearen prozesua 2007ko abenduaren 4ko C/108/07 ORONA/ASCENSORES GASTEIZ ize-neko kontzentrazio ekonomikorako espedientearen txostenean dago jasota. Aipatu txostenean honakoa adierazten da: «mantentze-lanen merkaturako merkaturako sekundarioa da igogailuen salmenta eta instalazioari dagokienez; izan ere mantentze-eta konpontze-zerbitzua eskatzen da horrelako zerbitzuak behar dituzten igogailuak daudelako». Hori dela eta, txostenak adierazten duenez,

«Alde batetik, merkaturako horretarako sarbidea izateak lotura handia du igogailua instalatzearekin:

Igogailua funtzionamenduan jartzeko garaian mantentze-kontratuari legez RAE erregistroan alta eman behar zaionez, ohikoena izaten da eskatzaileak (enpresa eraikitzailea, obra berria den kasuetan) mantentze-lana instalazioa burutu zuen enpresa berarekin kontratatzea. Horretarako arrazoi ekonomikoak daude, instalatzaileek bermea eskaini baitezakete akastun piezak aldatzeko, eta berme hori, zenbaitetan, igogailua abian jarri ondorengo epean matxurak konpontzeko ere eskaintzen dute. Aipatu berme hori galdu egingo litzateke hirugarren mantentzaile batek bermea indarrean dagoen bitartean igogailuaren dispositiboak doituko balitu.

Horretaz gain, finkaren etxejabeen elkarteak osatzen denean, hasierako kontratistak kontratu bidezko harreman hori hautsi egiten du, eta, ondorioz, igogailuaren mantentze-kontratuan interes txikiagoa du salmenta kontratuan zuena baino. Horrekin, une horretan saltzaileak salmentarekin lotutako mantentze-eskaintza egiteko aukera du, salmenta prezio hobea eskainiz, mantentze-lanetan baldintza hobeak lortzearen truke.

Behin etxejabeen elkarteak osatu ondoren (eraikina obra berrikoa baldin bada), batzar horrek eskumena du kontratuan enpresa eraikitzailearen tokian subrogatzeko, edo hornitzailea aldatzeko; hasiera batean, jakinarazlearekin ados jarritzeko, ez da diru aldetik zigorrik ezartzen. Hala eta guztiz ere, batzorde honi jakinarazi zaionez, ez da ohikoa kasu hori ematea.

Kontratua indarrean dagoen gainerako denboran (zenbaitetan epe hori 10 urteetara luza daiteke), justifikatutako arrazoirik izan ezean bezeroak ez du kontratua deuseztatzeko aukerarik hornitzailearen aldeko zigorrik ordaindu gabe.

⁶ Kontuan hartu behar baita mantentze-kontratua nahitaezko baldintza dela igogailua funtzionamenduan jartzeko.

Kontratua berritzeko garaian, eskaeraren zati bat, etxebizitzetarako erabilera duten eraikinetako jabekideen batzarrek osatzen dutena batez ere, ez da prezioarekiko batere malgua izaten, notifikatzaileak berak, beste lehiakide batzuek eta Gipuzkoako eta Arabako Finken Administrazioaileen Elkargoak helarazitako informazioaren arabera. Ohikoena izaten da kontratua zerbitzuaren lehengo hornitzaile berarekin berritzea, gorabehera gutxi gertatu baldin badira edo gorabehera horiek beren gustura konpondu baldin badira behintzat (zerbitzu azkarra edo piezak aldatzea beharrezkoa izanez gero, esate baterako)».

INDARREAN DAGOEN LEGEDIA

3. INDARREAN DAGOEN LEGEDIA

3.1. Euskal Autonomia Erkidegoak industria segurtasunaren eta industria kalitatearen sektorean dituen eskumenak

Konstituzioaren testuak berariazko aipamen gutxi biltzen ditu industriaren alorreko lehiaren inguruan. Hori dela eta, alor honetan lotura konstituzionala askotan jarduera ekonomikoa antolatzen duen kontzeptu orokorragora zabaltu beharko da (149.1.13 artikulua), bertan industria-jarduera jasotzen baita. Industria kalitate eta segurtasunaren gaietan (instalazioak eta horien mantentze-lana) ematen den lehiaren mugen definizioa, funtsean, jurisprudentzia konstituzionalean⁷ bilatu behar da. Ildo horretan, ekarpen berriena, eta konklusiboa, STC 33/2005⁸ epaian aurkitzen dugu. Epai horren arabera, onartu egiten da autonomiek industria ikuskatzearen administrazio erregimena konfiguratzeko eskumena dutela, baita eskumen betearazlea ere. Hortik bi ondorio garrantzitsu atera daitezke:

1. industria ikuskatze-jardueren gaineko administrazio esku hartzearen erregimena autonomien eskumenekoa da.
2. eskumen exekutiboak gauzatzearen ondorioz autonomiaz gaindiko efektuak sortu eta ematen badira ere, efektu horiek emateak ez du justifikatzen Estatuaren esku hartzea.

Dena den, industria-jardueraren instalazioak eta mantentze-lanak bat etorri behar dute Autonomien Estatuaren antolaketarekin, bereziki Auzitegi Konstituzionalak «*kanpoko efektuak*» izenez izendatu duenarekin. Beste hitz batzuetan esateko, mantentze-lanak eta ikuskatze-lanak egiten dituzten erakundeei baimenak emateko eskumena Autonomia Erkidegoak izateak ez du esan nahi harreman administratiborako mekanismo juridikorik

⁷ (SSTC 203/1992; 14/1994; 183/1996; 243/1994; 313/1994; 179/1998).

⁸ 33/2005 STC epaiak Kataluniako Consell Executiu de la Generalitat-ek ondorengo bi dekretuen kontra jarritako eskumen arazoaren inguruko ebazpena ematen du: abenduaren 28ko 2200/1995 Errege Dekretua, Industria Kalitatea eta Segurtasunerako Azpiegituraren Araudia onartzen duena (RICSI) eta, ekainaren 29ko Kontseiluaren 1863/93 (CEE) Araudia aplikatzeko arauak ezartzen dituen urtarilaren 26ko 85/1996 Errege Dekretua, ahalbidetzen duena industriaren alorreko enpresek era boluntarioan ingurumen kudeaketa eta kontu ikuskatze-sistema komunitario bati atxikitzea.

Arazoa planteatzen da Estatuak ingurumenaren alorreko egiaztagailuak egiaztatze erakundeak erregulatzerakoan dituen eskumenen gaietan, Zuzenbide Komunitarioan aurreikusiak, baita Estatuak erakunde egiaztatzaileak izendatzeko eskumena izateagatik (ENAC), autonomia erkidegoekin lehiatzen jarrita. Nahiz eta azterketa honetan esku artean dugun kasuarekiko distantzia handia izan, Auzitegi Konstituzionalak industria gaietan Estatuak eta autonomiek dituzten eskumenak zehazterakoan erabilitako argudioak interesgarriak dira guretzat.

antolatu behar ez denik⁹ erakunde batek baimena eman zion erkidegotik kanpo jarduten duen kasuetarako (*market contestability* eta tokikoak ez diren operadoreak sartzeko aukera). Helburu horrekin, uztailaren 16ko 21/1992 Estatuko Legeak, Industriari buruzkoak, besteak beste honako printzipioak adierazten ditu:

- Instalazioan eta mantentze-lanetan kontrola egiten duten erakundeei baimena ematea erakunde horiek beren jarduera gauzatzen duten lurraldean industria gaietan eskumena duen administrazioari dagokio (15.3 artikulua, eskumenaren lurraldetasunari buruzkoa). Euskal Autonomia Estatuak¹⁰ bere eskumenen artean industriaren alorra ere jasotzen duenez, erakunde horiei baimena ematea Euskal Autonomia Erkidegoari dagokio.
- Kontrolerako erakundeei emandako baimenak Estatuaren eremu osorako izango dira baliodunak (15.4 artikulua). Ohartu beharra dago lege xedepena «erakundeei» emandako baimenei egiten diela aipamena eta ez «erakundeek» emandako baimenei. Desberdintasun hori funtsezkoa da: lehenengo kasuan edozein autonomia administrazio beste erakunde bat baimendutzat onartzera behartuta dagoela ezartzen den bitartean, bigarren kasuan aipatu erakundeen jarduerak onartzeari buruz baino ez da ari. Beraz, onartu egiten da norbere lurraldetik kanpo sortutako eta baimendutako entitateen autonomien arteko nolabaiteko elkar onartze bat.
- Ezarri egiten da industria gaietan eskumena duen administrazioari jakinarazi egin behar zaiola hasierako baimena eman zen lurraldetik kanpo industria aparatuen instalazioen kontrol-jarduerak eta mantentze-lanak egiteko asmoa baldin badago (15.4 artikulua)¹¹.

Adibide bat ematearren, ez legoke inolako eragozpenik EAEk igogailuen enpresa mantentzaileen lurralde administrazio-baimenaren sistema, Igogailuen Araudian¹² jasotakoa, alda dezan, eta horren ordeztu autonomia mailako baimen sistema bakar bat ezar dezan, Euskal Autonomia Erkidegoan balioduna eta eraginkorra izango dena. Baimenaren norainokoa industria gaietako

⁹ Helburu horrekin, gogorazi behar dugu Auzitegi Konstituzionalaren STC 243/1994 epaiak baztertu egiten dituela industria gaietan estatuak duen eskumen exekutiboaren erabateko inibizioa defendatzen duten tesiak.

¹⁰ Euskadiko Autonomia Estatuak 10.30 artikuluan xedatzen du Autonomia Erkidegoak «eskumen eskusiboa duela industria gaietan, ondorengoetan izan ezik: segurtasuna, interes militarra eta osasuna bezalako arazoak direla medio arau bereziak dituzten industriak instalatu, zabaldu edo lekualdatzeko; funtzio horietarako legedi espezifikoak behar dutenak; ezta aldeztu aurretik atzerriko teknologiaren transferentzia kontratuak behar dituztenak ere». Eskumen eskusibo hori, beraz, Estatuak duen eskumen arauemaile batek mugatzen du, Estatuak «industria segurtasun arazoak direla eta» arauak xedatzeko eskumena baitu.

¹¹ Ikus 1997ko uztailaren 1ean EAEko Industria, Energia eta Meatzetako Administrazioaren Zuzendariak emandako ebazpena, beste autonomia erkidego batzuek baimendutako kontrol erakundeen jardueraren inguruko jakinarazpenari buruzko behin-behineko argibideak onartzen dituenak.

¹² Azaroaren 8ko 2291/1985 Errege Dekretua, igogailuen eta horien mantentze-lanaren gaineko Araudia onartzen duena.

eskumen exekutiboaren administrazio diseinuaren funtsezko elementua da, eta, hori dela eta, askatasun handia izango luke. Aldaketa hipotetiko horrekin ez litzateke eragotziko Estatuaren legediak lortu nahi dituen helburuak erdi-estea.

Horretaz gain, marko konstituzionalak ezarri egiten du autonomiek industria ikuskatzeak eta mantentze-lanak egiteko baimena duten erakundeen elkar onartzea. Autonomien eskumen exekutiboa ezin da inolaz ere lege oztupoa izan, beste erkidego batzuek baimendutako erakundeei EAEi jardutea eragotziko diena. Era horretan, bermatu egiten dira tokiko merkatuen kontestabilitatea eta baimendutako sistemen arteko lehia.

3.2. Sektorearen erregulazioa

3.2.1. Euskal Autonomia Erkidegoko azaroaren 12ko 8/2004 Euskal Legea, industriari buruzkoa¹³

Euskal Autonomia Erkidegoaren Estatutuak 10.30 artikuluan xedatzen du Autonomia Erkidegoak eskumen eskusiboa duela industria gaietan¹⁴, eta eskumen hori Euskal Autonomia Erkidegoko azaroaren 12ko 8/2004 Industriari buruzko Legearen bidez garatzen da, batez ere.

Legearen atarikoak aipatu beharrekoak diren printzipio orokor batzuk ezartzen ditu:

- Industria-jardueraren antolaketak bat etorri behar du industria-jarduera burutzeko askatasun marko orokorarekin eta jarduera hori burutzeko askatasunarekin. Herri botereen esku hartzea, beraz, tresna bat besterik ez da industriaren segurtasuna eta kalitatea bermatzeko.
- Gaur egungo Euskal Autonomia Erkidegoko errealitate sozial eta ekonomikoak argi erakusten du autonomiaz gaindiko beste erakunde batzuek agintzen dituzten eta beren kontrol eta berme sistema bereziak dakartzaten (CE markatzailea) arau teknikoak daudela.
- Industria-arloa bera ere, bere burua arautzeko gero eta sistema gehiago ari da sortzen, arau pribatuak ezarriz, eta, horrenbestez, Administrazioaren esku hartzea behera doa, bai araugintzan bai zeregin betearazlean.
- Teknikaren aldetik espezializatu beharra dagoenez, eta, era berean, zerbitzu egokia ematen dela bermatu behar denez, tradizioz pribatuak izan diren hainbat eginkizun oinarri pribatuko eragile batzuk ari dira hartzen bere gain.

¹³ 2004ko azaroaren 29ko 228. zk. EHAA aldizkaria.

¹⁴ Eskumen eskusiboa, beraz, Estatuak gaia arautzeko duen ahalmenak mugatzen du, «industriaren segurtasuneko arrazoiak direla medio» Estatuak arauak sor baititzaize.

8/2004 Legearen arabera (4.1. artikulua) «Lege honen ondorioetarako, hauek dira industria-jarduerak: industriako produktuak lortzeko, konpontzeko, mantentzeko, eraldatzeko edo berriro erabiltzeko jarduerak, ontziratzea eta paketatzea, eta hondarrak eta azpiproduktuak aprobetxatzea, berreskuratzea eta ezabatzea –eta berdin dio zein baliabide edo prozesu tekniko erabiltzen den–, Industriako uztailaren 16ko 21/1992 Legean jartzen duen moduan». Era berean, 3.3.d) artikulua enpresa baimendunentzako erantzukizunetarako araubidea xedatzen du, haien esku utzitako instalazioak behar bezala egin eta mantentzen dituzaten.

Ondorioz, bi agindu horietatik honako ideia ateratzerik dago, alegia, mantentze-lana burutzen duten enpresak oinarritzko elementua dira Legeak industriaren alorreko gaiak arautzeko aurreikusitako helburuak lortzeko. Alde batetik, industria-jardueraren beraren zatitzat hartzen dira (eta horregatik lortu behar dira baimenak eta erregistratu egin behar dira), eta, beste alde batetik, industriaren kalitate eta segurtasun prozesuen erantzukizunetarako erregimenean esku hartzen dute. Beste hitz batzuetan esateko, mantentze-lana burutzen duten enpresak ez dira besterik gabe beste jarduera ekonomiko bat gehiago, baizik eta industriaren kalitatea eta segurtasuna bermatzerakoan oinarritzko pieza dira. Hortaz, jarduera pribatuen bitartez interes orokorreko helburuak lortu nahi dira.

Ikuspegi horixe bera antzematen da 7. artikuluan, instalazioen mantentzeak eta produkzioerako ekipoa industriaren segurtasunari buruko xedapenen derrigorrezko sistemaren barruan definitzen direnean.

14. artikulua, Industriaren arloko Administrazioaren eragile laguntzaileei buruzkoak, eragile laguntzailetzat hartzen ditu teknikari tituludun gaitasundunak eta erregelamenduetan aurreikusitako espezialitateetako batean baimendurik dauden profesional edo enpresak¹⁵.

Legearen III. eta IV. kapituluetan sistema administratibo orokor bat zehazten da, segurtasunaren eta industria kalitatearen artean bereizten duena. Sistema horren laburpena ondorengo koadroan ematen da, gutxi gorabehera:

3.1. koadroa		
Industria-segurtasuna eta kalitatea		
	Betebeharra	Operadorea
Industria segurtasuna	Arauemailea (araudiak)	Eragile laguntzaileak
Industria kalitatea	Boluntarioa	Eragile publiko edo pribatuak

¹⁵ Industria gaitan eskumena duen organora bideratzen du espezifikoki honakoak zehazteko:

- Aipatutako eragileek bete behar dituzten betekizun eta baldintzak.
- Aipatutako esku hartzea emateko legezko eremuak.
- Aipatutako eragile horiek bete beharreko prozedura eta kontrolerako sistemak.

Eragile berak segurtasunaren alorrean zein kalitatearen alorrean jardun dezake. Kasu baten eta besteen arteko desberdintasun bakarra betebeharraren izae-raren ingurukoa izango da. Era horretan, segurtasunerako araudiek¹⁶ ezarritako mantentze-jarduerak derrigorrezko jarduerak dira, eta, hori dela eta, sistema publiko-administratibotik oso gertu daude. Kalitatearen inguruko mantentze-lan boluntarioa¹⁷, ordea, eremu pribatuan gauzatzen da.

3.2.2. Martxoaren 14ko 63/2006 dekretua, kalifikazio indibidualeko txartelak eta segurtasun industrialaren gaitan baimendutako enpresak arautzen dituen

Euskal Autonomia Erkidegoaren martxoaren 14ko 63/2006 Dekretuak¹⁸, Kalifikazio indibidualeko txartelak eta segurtasun industrialaren gaitan baimendutako enpresak arautzeari buruzkoak, aplikatu beharreko erregimen juridikoa arautzen du, bi alderdi kontuan izanda:

- Segurtasun industrialaren kudeaketan esku hartzen duten profesionalen Kalifikazio indibidualeko txartelak.

Hala ere zehaztu behar da, 2006ko apirilaren 10eko aginduak, Industria, Merkataritza eta Turismoko sailburuarena, 63/2006 dekretua garatzen duenak, ez duela jasotzen kalifikazio indibidualeko txartelak igogailuen mantentze-lanari dagokionez.

- Administrazioaren eragile laguntzaile gisa instalazioan eta mantentze-lanetan jarduteko baimena duten enpresak.

3.2.2.1. Norbanakoaren prestakuntzarako txartela

63/2006 Dekretuak norbanakoaren prestakuntza arautzen du. Horrek ahalbidetu egiten du mantentze-lanen jarduera oso tamaina txikia duten egitura eta jardueretara egokitzea. Esan liteke Dekretuak instituzionalizatu egiten ditu-

¹⁶ Araudia betetzen dela egiaztatzeko, instalazioaren titularrak, fabrikatzaileak, ordezkeriak, banatzaileak edo produktua inportatu duen pertsonak adierazpena aurkez dezakete, edo eragile laguntzaile batek egindako ziurtagiria aurkez daiteke. Segurtasun araudiek instalazioetan aldian behin mantentze-lana egitera derrigor dezakete, eta hori dela eta, eragile laguntzaileak burutzen duten funtzioa ia publikoa dela esan liteke».

¹⁷ 18. artikuluan industriaren kalitatea, ordea, honela definitzen da: «izaera pribatuko arau batean ezarritako prozesu, eskakizun eta baldintza teknikoen multzoa, ekoizpen eta kudeaketa prozesuak zein industriako produktu, tresna edo ekipoen zehaztapen teknikoak arautzen dituena; hori betetzea ez da nahiaezkoa izango, ez delako arauzko xedapen batek agintzen duen zerbait. Aurreko paragrafoan aipatzen diren arauak arauzko xedapen baten bidez agindutakoak baldin badira, industriako segurtasunaren arloko bihurtuko dira, segurtasun horri dagozkionetan.»

¹⁸ Indargabetu egiten du maiatzaren 17ko 175/1994 Dekretua, norbanakoaren prestakuntzako txartelak eskuratzeko prozedura bateratzeari buruzkoa, eta definitu egiten du industria segurtasunaren alorrean instalazioak, mantentze-lanak edo bestelako jarduerak burutzen dituzten enpresa baimendunei ezarri beharreko eskakizunak.

ela Administrazioaren teknikari autonomo laguntzaileak (hala eta guztiz ere enpresa eratu beharra dute).

Kalifikazio indibidualeko txartelak, igogailuen mantentze-lanetara hedatuz gero murriztu egingo lituzke sektore honetan aritzeko egon litezkeen oztopok; izan ere, ahalbidetu egingo luke operadore atomizatu txikiak egotea, eta ez bakarrik mantentze-zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresa multzo handiak.

3.2.2.2. Enpresa baimendunak

63/2006 Errege Dekretuaren 3. artikulua honela definitzen ditu enpresa baimendunak: *«persona fisiko edo juridikoa da, industria segurtasunaren alorrean jarduerak burutzeko gaitzen duen baimen administratibo egokia duena, hain zuzen ere, instalazioak egin, konpondu, mantendu, berrikusi eta kontrolatzeko jarduerak»*. Industriaren segurtasunaren alorrean baimenduta dauden enpresek lau arlotan jardun dezakete, era integralean zein banatuan:

1. Industria segurtasunaren araudien pean dauden instalazioak diseinatzea eta exekutatzeta.
2. Instalazioak berrikustea, ikuskatzea eta kontrolatzea.
3. Instalazioak mantentzea, bidezko araudi teknikoak horrela eskatzen duenean.
4. Instalazioak konpontzea, jarduera hori baimendutako instalatzaile batek egin beharrekoa denean.

Industria gaitan eskumena duen organoak ematen duen ziurtagiria lortu nahi duten erakundeek Industriaren alorreko Establezimenduen Erregistroan egon beharko dute inskribatuta, alta emana izan beharko dute Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan, eta euren jarduera burutu ahal izateko beharrezkoak dira giza baliabideak eta baliabide materialak izan beharko dituzte. Era berean, derrigorrezkoa da erantzukizun zibilerako poliza bat kontratatzea, funtzioak burutzen ari diren bitartean kalterik sortuz gero horiek konponduko direla bermatzeko.

Lurraldean industria gaitan eskumena duen organoak, aurkeztutako dokumentazioa aztertu eta bidezko egiaztapenak egin ondoren, enpresa baimendunaren egiaztagiria emango du, hala badagokio, gehienez hilabeteko epean.

Entitateek lurraldetik kanpo jarduteak aparteko aipamena egitea eskatzen du. Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde egitura administratiboa dela eta, entitate baimenduna izango da bere lurraldean industria gaitan eskumena duen lurralde organoak baimena emanaz gero, hau da, dagokion lurralde ordezkariak ematen dionean. Hori horrela, Araban erregistratuta dagoen entitate bat ez dago automatikoki baimendua Gipuzkoan jarduteko, eta jakinarazi egin behar du. Erkidegotik kanpoko entitateak onartzeari buruz, berriz, jardueran aritzeko askatasun printzipioarekin batera, beharrezkoa da jardun

nahi den tokian Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta emanda dagoela egiaztatzea¹⁹. 18. artikulua erregulazioan, entitateak alta eman beharko du jarduera horretarako, eta hori leku horretan enpresa filial bat sortzeko pizgarri egokia izan daiteke, edo jarduera eragozten duen oztopo bat.

3.3. Igogailuen gaineko araudia²⁰

Bereziki nabarmena da azaroaren 8ko 2291/1985 Errege Dekretua, igogailu eta karga-jasogailuen instalazioa eta horien mantentze-lanak onartzen dituen. Abuztuaren 1eko 1314/1997 Errege Dekretuak arau hori partzialki indargabetu egin zuen. Azken Dekretu horrek xedatu egiten ditu aplikatzekoak diren Europako Parlamentuaren 95/16/CE Zuzentarauak eta igogailuen Kontseiluak emandako xedapenak, 10etik 15era eta 19tik 24ra bitarteko artikuluan indarrean utziz.

Lehenengo eta behin, azpimarratzekoa da instalatzaile kontzeptua desageratu egiten dela. 1997. urtean egin zen erreforma, hortaz, sektore honen balio katea laburtu egin zuen. Era horretan, genuen eskema, hau da, fabrikatzailea–instalatzailea–mantentzailea, orain fabrikatzaile-mantentzaile eran aurkitzen dugu. Fabrikatzen edo mantentze-lanetan diharduten enpresa horiek berak dira orain igogailua instalatzeaz arduratzen direnak. Kontserbazioa egiten duten enpresen erregulazioak, berriz, bai jarraitzen du²¹.

¹⁹ Hori horrela, mantentze-lana burutzen duen Kataluniako entitate batek Bilboko enpresa bateko tresna baten aldiari behingo ikuskatzea burutu nahi baldin badu, bidezko JEZ zergan alta eman beharko du. Horrek zeharo oztopatzen ditu noizean behin egin beharreko jarduera puntualak. Beste egoera batean, mantentze-lana burutzen duten teknikariak aurkeztu eta lanean aritzeko aukera izango lukete hotel batean ostatu hartuko balute.

²⁰ Ondorio horietarako araudiak 1. eranskinean daude jasota.

Analisi honetatik kanpo gelditzen dira obretan erabiliko diren igogailuak eta karga-jasogailuak, dorre garabiak eta garabi mugikor autopropulsatuak, esate baterako. Horretarako, ikus: ekainaren 27ko 837/2003 Errege Dekretua, garabi mugikor autopropulsatuen gaineko igogailuen instalazioa eta mantentze-lanari buruzko Araudiaren MIE-AEM-4 Jarraibide Tekniko Osagarriaren testu aldatua eta bategina onartzen duena; ekainaren 27ko 836/2003 Errege Dekretua, obretarako edo beste erabilera batzuetarako dorre garabien gaineko igogailuen instalazioa eta mantentze-lanari buruzko Araudiaren MIE-AEM-2 Jarraibide Tekniko Osagarriaren testu aldatua eta bategina onartzen duena.

Minusbaliatuentzako igogailu eta plataformen kasurako (home-lifts), ikus makinei buruzko 98/37/CE Zuzentarauaren gaineko Zuzentaru Interpretatzailearen Zirkularra. Espainian horren aplikazioa 1435/1992 eta 56/1995 Errege Dekretuen bidez egin zen.

²¹ 10. Artikulua

1. Araudi honen ondorioetarako, enpresa kontserbatzailetzat hartuko diren enpresek, jarduten duten lurraldeetan mantentze- eta kontserbatze jarduerak burutzeko, Administrazio Publikoaren lurralde organo eskudunen enpresa kontserbatzaileen erregistroan inskribatuta egon beharko dute.
2. Enpresa kontserbatzaileek, ondorengoak beteko dituzte gutxienez:
 - a) Jarraibide tekniko osagarri (ITC) bakoitzean zehaztutako baliabide teknikoak eta giza baliabideak izango dituzte.
 - b) Beren jardueratik erator daitekeen erantzukizun zibila estalita izango dute. Horretarako (...)c) Haien erantzukizuna izango da beren esku jartzen diren aparatuek funtzionamendu baldintza egokiak izatea.
3. Inskripzio horien balio epea urtebetekoa izango da, eta, (...)

Indarrean dagoen erregulazio horretatik, hainbat alderdi azpimarra ditzakegu:

- Diseinu administratiboa da, mantentze-lana burutzen duten enpresek merkatuan ezartzeko duten askatasunean oinarritua. Eskakizunak betetzen dituen edozein enpresak izango du Administrazioak ematen duen baimena lortzeko aukera. Ez da, beraz, KBE erakunde batzuekin gertatzen den bezala, sistema itxi, kontingentatu edo kontzesionala.
- Araudi horrek berak aurreikusten du probintzia eremua dela mantentze-lanetan diharduten enpresen merkatu nabarmenena. Horrek lurralde segmentazio handia dakar.
- Enpresei eskatu egiten zaie hainbat baliabide tekniko eta giza baliabide eskura jartzeko (igogailuari dagozkion ITC Jarraibide Tekniko Osagarrietan daude zehaztuak). Adibide gisa, 57/2005 Errege Dekretuak²² ezartzen du alor honetako enpresa kontserbatzaileek langile zerrendan, lanaldi osoan, gutxienez teknikari titulatu bat (goi mailako inginiaria edo inginiari teknikoa) eta 5 langile kualifikatu eduki behar dituela. Azken horietako 3k gutxienez ofizial maila izan behar dute.
- Enpresa kontserbatzaileei ematen zaien baimenak urtebeteko iraupena du, eta luzatzen denean urtebeteko eperako luzatuko da.

Instalatzaileen jardueraren eta mantentze-lanen enpresen erregulazioarekin batera, 1997ko Araudiak igogailuen jabeek dituzten betebeharren gaiari ere heltzen

11. Artikulua. Kontserbatzaileek, Jarraibide Tekniko Osagarriek zehazten dutena gorabehera, kontratatuta duten igogailuen mantentze- edo kontserbatze-lanaren inguruko honako betebeharrak izango dituzte:

- a) igogailuak berrikusi eta mantentzea eta instalazioa ikuskatzea ITC jarraibideetan igogailu mota bakoitzerako zehazten diren epeei jarraiki. Ikuskatze horietan arreta berezia jarriko dute igogailuen segurtasunerako elementuetan, mantentze egokia eta pertsona eta gauzen segurtasuna bermatzeko.
- b) instalazioan matxurak gertatzen direnean, jabeak edo alokatzaileak, edo zerbitzuaz arduratzen den pertsonak, dei egiten dietenean langile eskudunak bidaltzea.
- c) jabeari edo alokatzaileari idatziz adieraztea igogailuaren zein elementu aldatu behar diren, igogailuak funtzionamendu egokia emateko bermerik ez duelako eskaintzen, edo igogailuak ez baditu betetzen aplikatzeakoak diren baldintza teknikoak.
- d) istripuak izateko arriskua baldin badago igogailuaren zerbitzua etetea, bidezko konponketak egin arte. Istripua gertatuz gero, herri administrazioiko lurralde organo eskudunari eman beharko diote horren berri, eta funtzionamendua eten egingo dute bidezko ikuskatze eta probak egin eta organo eskudun horrek berriro martxan jartzeko baimena eman arte.
- e) lurralde organo eskudunak egin zuen aldian behingo azkeneko ikuskatzetik, honako datuak jasotzen dituen dokumentazioa kontserbatzea: (...) Dokumentazio horren kopia bat jabeari edo alokatzaileari ere eman beharko diote.
- f) igogailuaren jabeari jakinaraztea zein datatan eskatu behar duen aldian behingo ikuskatzea.
- g) gehienez hamabost eguneko epean herri administrazioaren lurralde organo eskudunari beren ardurapean dituzten igogailu guztien kontserbatze-kontratuak izan diren alta eta baja guztien berri ematea. Jakinarazpen hori bidaltzean, kontserbatzaileak egoki irizten dituen oharrak egin ahal izango ditu.

²² 57/2005 Errege Dekretua, urtarrilaren 21ekoa. Horren bidez, dagoen igogailu-parkearen segurtasuna areagotzeko aginduak ematen dira.

dio (13. artikulua)²³. Betebehar horien artean azpimarratzen du «*derrigorrezkoa dela instalazioaren mantentze-lana eta ikuskatzeak Administrazio Publikoaren lurralde organo eskudunak enpresa kontserbatzaileak erregistratzeko duen erregistroan inskribatuta dagoen enpresa batekin kontratatzea, araudi honen jarraibide tekniko osagarrietan horrela jasota baldin bada.*»

Orain arte adierazitako guzti horretatik, igogailuen sektorea erregulatzen duten oinarrizko ildoak atera daitezke:

- Enpresa baimendunek probintziaren eremu barruan dute jarduteko baime-na, 5 urteko eperako²⁴.
- Igogailuen jabeek mantentze-zerbitzua kontratatu behar dute derrigorrez²⁵.
- Enpresei giza baliabideak eta baliabide materialak izateko betebeharra ezartzen zaie, eta hori, zenbaitetan, jarduera honetan aritzeko oztopo izan daiteke.
- Jarraibide tekniko osagarriek (ITC) igogailuen betebehar teknikoak eta kontrolak egiteko epeak arautzen dituzte espezifikoki.
- Enpresa kontserbatzaileek edo mantentze-lanetan aritzen direnek eskumena dute igogailuaren zerbitzua eteteko, istripua izateko arriskua dagoela ikusiz gero, aparatuak behar dituen konponketak egin arte²⁶.

Mantentze-lana egitearen aldizkakotasuna aldatu egiten da ikuskatu beharreko elementuen arabera, eta hilerok, sei hilerok eta urterok egiten da.

²³ «Jabeak. 1. Araudi honen helburu den igogailu baten jabeak edo, hala dagokionean, alokatzaileak, zaindu egin beharko du aparatua funtzionamendu egokian egon dadin, eta pertsona zein gauzen segurtasuna bermatzeko baldintzak ez dituela betetzen ikusiz gero, igogailua erabiltzea eragotzi beharko du. Helburu horiek lortzeko, honako betebeharrak bete beharko ditu:

- a) instalazioaren mantentze-lana eta ikuskatzeak herri administrazioaren bidezko lurralde organo eskudunak enpresa kontserbatzaileak erregistratzeko duen erregistroan inskribatutako enpresa batekin kontratatu beharko du, ITC jarraibideetan horrela egin behar dela adierazten bada.
- b) ITC jarraibideetan zehazten diren aldi behingo ikuskatzeak egiteko eskaera epe barruan aurkeztuko du.
- c) instalazioen zerbitzua behar bezala zainduko du. Horretarako, aparatuari dagozkion ITC jarraibideetan horrela adierazten bada, gutxienez pertsona bat izendatu beharko du igogailuaz ardura dadin.
- d) eragotzi egingo du instalazioa erabiltzea, zuzenean edo zeharka, igogailuak beharrezko segurtasun neurriak ez dituela betetzen jakin bezain pronto.
- e) istripurik gertatuz gero, herri administrazioaren bidezko lurralde organo eskudunari eta enpresa kontserbatzaileari horren berri emango die, eta organo eskudun horrek egin beharreko ikuskatze eta frogak egin arte igogailua zerbitzuz kanpo mantenduko du.
- f) igogailuan egin behar dituen ikuskatze eta egiaztapen guztiak egitea ahalbidetu egingo dio enpresa kontserbatzaileari».

²⁴ Martxoaren 14ko 63/2006 Dekretuaren 16. artikuluko sartutako aldaketa.

²⁵ 2002. urteko ekainaren 7ko Eusko Jaurlaritzaren Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak emandako Aginduen VII. Eranskinak, igogailuen aldi behingo ikuskatzeak eta igogailuen mantentze- eta kontserbatze-lana egiteko prozedura ezartzen duenak, zehaztu egiten du mantentze eta ikuskatzeak nolakoak izango diren eta zein epeetan egingo diren.

²⁶ 2002. urteko ekainaren 7ko Eusko Jaurlaritzaren Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak emandako Aginduen 9.1. artikuluko xedatu egiten du igogailuen aldi behingo ikuskatzeak eta igogailuen mantentze- eta kontserbatze-lana egiteko prozedura.

MERKATU GARRANTZITSUAK

4. MERKATU GARRANTZITSUAK

Igogailuen instalazio eta mantentze-lanen enpresen jarduerak, funtsean, bi azpisektoreren inguruan gauzatzen dira: ohiko instalazio eta mantentze-lana eta igogailu bakoitzaren araudi erregulatuak ezarritako industria segurtasuneko betebeharren arauzko kontrola. Horiek horrela, lehenengo kasuan, garrantzitsuenak merkatuaren egituraren inguruko alderdiak diren bitartean (merkatuen tamaina, fabrikatzailearen eta mantentze-lanen enpresaren arteko integrazio bertikala, nagusitasun posizioa, lurralde banaketa eta abar), bigarren kasuan merkatuan sartzerakoan aurkitzen diren oztopoak azpimarratu behar dira (baimena lortu behar da, «*market contestability*» edo beste erkidego batzuetatik etortitako operadoreak sar litezke, prezioak ezartzeko sistema eta abar).

Igogailuen instalazioak eta mantentze-lanak egiteko legeak ezarritako baldintza zorrotzak bete behar dira. Lehenengo eta behin, mantentze-lana emateko eskaera nahitaez merkatuak berak egin behar du (arauzko mantentze-lana egiteko beharra). Bigarrenik, operadoreen jarduera ez da erabat librea, baimena ematen duen prozedura administratiboan ezarritako hainbat kontrol gainditu behar baititu. Legezko konfigurazio horrek dituen berezitasun nabarmen horien aurrean (derrigortasuna eta merkatuan sartzeko oztopoak) prezioen mekanismoa ez dago arautua, Administrazioak ez du prezioen gaineko kontrolik eramaten (ezta bertsio errazenean, jakinarazitako prezioak izan litezkeen bezala).

Tradizioz²⁷, lehiaren gaitan eskumena duten agintariek bi merkatu garrantzitsu bereizi izan dituzte, bakoitzak bere ezaugarri eta dimentsio desberdinak dituen:

1. Igogailuak instalatzeko merkatua, nazio mailakoa dela esan litekeena.
2. Kontserbatze- eta mantentze-lanaren merkatua, tokiko izaera edo izaera probintziala duena²⁸.

²⁷ 2003ko otsailaren 28ko LDZ txostena (ZARDOYA OTIS / INAPELSA, 03007 zenbakikoa), 2005eko otsailaren 12ko LDZren txostena (ZARDOYA / ELECTROMECHANICA CAM, 04094 zenbakikoa), ORONA / ELECTRA kontzentratzeko operazioa (2005eko uztailaren 18ko SDCren 05050 zenbakiko txostena). Lehiaren Defentsarako Zerbitzuaren txostena, 2005eko irailaren 5ekoa (05068 espedientea).

²⁸ SDCren 03007 zenbakiko txostena: «*Kontsidera liteke igogailuen mantentze- eta konpontze-zerbitzuen merkatuaren dimentsioa probintziala baino beharagokoa dela, kontuan hartuta, esate baterako, udalerrri edo biztanle multzo zehatz bat eta horren inguruan desplazamendu denbora jakin bati dagokion eremu bat (isokrona) gisa ezagutzen direnak, merkataritza banaketaren merkatuetan erabiliak. Hala eta guztiz ere, toki mailan instalatuta dauden igogailuei buruzko informazio fidagarria eman dezakeen iturririk ez dagoenez, litekeena da sektoreko operadoreen egitura propioarengatik isokronak solapatzea. Beraz, egokia dirudi igogailuen konpontze- eta mantentze-lanen zerbitzuen merkatuak eremua probintziala dela kontsideratzea.*

Derrigorrezkoa da RAE erregistroan inskribatuta dauden igogailu guztiek mantentze-kontratua izatea²⁹, are gehiago, funtzionamenduan jarri aurretik bete beharreko baldintza da hori. Era berean, nahitaezkoa da adieraztea mantentze-kontratuak igogailuaren gainerako datuekin batera inskribatu behar direla, eta enpresa kontserbatzaileek beren ardurapean dituzten igogailu guztien kontserbatze-kontratueta izandako alta eta baja guztien berri eman behar diotela eskumena duen administrazioaren organoari.

Merkatuan igogailuetarako mantentze-kontratu mota ugari dago, kontratazi-orako baldintzak ezartzeko legearen aldetik dagoen askatasunaren erakusgarri. Hala eta guztiz ere, adieraz daiteke enpresa kontserbatzaileek eskaintzen dituzten mantentze-kontratu mota nagusienak bi direla, hain zuzen ere oinarritzko mantentze-kontratua (osagaiak higatzeagatik egin beharreko konponketak bere gain hartzen ez dituen) eta arrisku guztietarako kontratua, bere gain hartzen duena, edo ez, guardiako zerbitzua (jai egunetan) edo eguneko 24 orduetan zerbitzua ematea.

Nolabait, beraz, igogailuei buruzko legedi espezifikoak mesedegarria izan daiteke integrazio bertikalerako, mantentze-kontratu balioduna eskatzen baitu inskribatzeko baldintza gisa. Beste alde batetik, sektore honi buruzko legedian ez dago instalatzailea-fabrikatzailea eta mantentzailea pertsona independenteak izan behar dutela dioten araurik, hornitutako aparatuaren bermerako baldintzetatik haratago.

Instalazioaren eta mantentze-lanen merkatuak oso bereizita dauden arren, egia da kontzentrazio operazioak izaten direla dagoeneko instalatuta dauden ekipoetako mantentze-kontratuetatik eratorritako eskubideak erosteko helburuarekin. Ildo horretan, komenigarria litzateke aztertzea enpresen fakturazioaren zein zati zor zaion mantentze-lanari eta zein lortzen den ekipoak saldu eta instalatzeagatik³⁰ Gaur egun merkatuan dagoen igogailu-kopurua oso handia denez, litekeena da fakturazioaren kopuru handiena aparatuen mantentze-lanetik eratorritakoa izatea.

Horretaz gain, igogailu bat erosteko prezioa eta igogailuaren mantentze-lana ordaintzeagatik sortutako kostea alderatuz gero, gauza da 10 urteko epea pasa ondoren bi kopuruak berdindu egiten direla (etxejabeen elkarte batentzako igogailu batek 24.000 € balio duela kalkulaten dugu, eta igogailua berrikusi, mantendu eta ikuskatzeko gastua 2.500 € ingurukoa da)³¹.

²⁹ 1314/1997 Errege Dekretuaren Bigarren Xedapen Gehigarriaren arabera, igogailuak zerbitzuan jarri aurretik dagokion autonomia erkidegoaren organo eskudunari igogailuari buruzko dokumentazioa aurkeztu beharko zaio. Agiri horien artean, besteak beste, kontserbatze-kontratuaren kopia bat aurkeztuko da. Ondoren, Administrazioak identifikazio zenbakia ezarriko dio igogailuari, eta RAE erregistroan erregistratuko (Igogailuen Erregistroa).

³⁰ Ikus ut infra. (5. atala).

³¹ Lanerako hipotesia da, sektoreko adituekin aztertu eta onartutako batez besteko kosteetan oinarritua.

Kontzentrazio ekonomikorako C 108/07 ORONA/ASCENSORES GASTEIZ espedientean, 2007ko abenduaren 4an CNCK ebatzia, CNCK mantentze-merkatua honako ezaugarriak dituen merkatu gisa aztertzen du: *«merkatu honen lehenengo ezaugarria da merkatu sekundarioa dela igogailuen salmenta eta instalazioari dagokionez; izan ere, mantentze- eta konpontze-zerbitzua eskatzen da horrelako zainketak behar dituzten igogailuak daudelako».*

Azterketan elaboratuko datu ekonomikoek, merkatuko eragileen *business mix* konplexuago bat erakusten dute: instalazioak EAEn jarduerak mugitzen duen diru kopuruaren %30 inguru biltzen duen bitartean, estimatzen da mantentze-lanak %70 gutxi gorabehera biltzen duela; azken merkatua, beraz, kuantitatiboki interesgarriena da. Ia enpresa fabrikatzaile guztiak analisiaren helburu diren bi merkatuetan edo azpisektoreetan presente daude.

Hori dela eta, nahiz eta ezaugarri desberdinak izan ez dira (ez ekonomiko-ki ezta araudiaren aldetik ere) bi merkatu erabat autonomo, lotura handiak dituzten eta mendekotasuna duten merkatuak baizik (bigarrenak lehenengoa-rekiko). Merkatu nagusia (instalazioa) eta merkatu sekundarioa (mantentzea) bereizi behar dira.

Ondorioz, aurrekoa kontuan, produktu merkatu garrantzitsuak lotuta daude, merkatu horiek hauek izanik: igogailuen salmenta eta instalazioa (merkatu nagusia) eta mantentze- eta konpotze-zerbitzua (merkatu sekundarioa).

MERKATU LEHIAKORRARI BURUZKO AZTERKETA

5. MERKATU LEHIAKORRARI BURUZKO AZTERKETA

5.1. Estatuko merkata: hainbat datu

Orain arte azaldutako eskaintzaren egitura honela zehazten da Estatuan:

a) *Salmenta eta instalazioa*

FEEDAK (Espainiako Igogailuen Enpresa Federazioa) emandako datuen arabera, 2004. urtean zehar igogailuen salmenta eta instalazio kopurua 40.542 izan zen.

Zenbateko hori enpresa kopuru handi batek lortutakoa da. Enpresa horien artean azpimarratu behar da talde multinazional garrantzitsu batzuetako kide diren enpresak osatzen duten multzoa dagoela, hala nola ZARDOYA OTIS, S.A., THYSSENKRUPP ELEVADORES, S.A., SCHINDLER, S.A. eta KONE ELEVADORES, S.A. Lau multinazional horiek, ORONA eta ELECTRA³² euskal enprekin batera, Estatuko merkatuaren hiru laurden inguru hartzen dute bere gain³³.

Multinazionalen talde murriz horren ondoan, hain zuzen ere Estatu mailan diharduten enpresa horien ondoan, erdiko tamainako enpresak eta enpresa txiki kopuru garrantzitsu bat dago, beren produktuak eremu geografiko txikiagoetan merkaturatzen dituztenak. Enpresa horiek merkatuaren gainerako laurdena hartzen dute.

5.1. koadroa	
Espainiako igogailuen salmenta eta instalazioaren merkata	
Operadorea	Kuota
Zardoya	%10-20
Thyssen	%10-20
Schindler	%5-15
Orona	%5-15
Kone	%0-10
Enor	%0-10
Electra	%0-10
Beste batzuk	%20-30

Iturria: LDZren txostena, N-05050 ORONA/ELECTRA.

³² Lehenengoak kontrolatutako bigarren mailako Sozietate Kooperatibo baten bitartez integratuak.

³³ ORONAK aurkeztutako estimazioen arabera, integrazio operazioaren inguruan SDCri egindako jakinarazpenean.

b) Mantentze- eta konpontze-lana

Igogailuen mantentze- eta konpontze-merkatuaren eskaintza igogailuak instalatzen diharduten enpresek osatzen dute (ZARDOYA, THYSEN, SCHINDLER, KONE eta abar), eta horiek Estatuko merkatuan ere presente daude. Bigarren multzo bat, askoz ugariagoa, tamaina erdiko eta txikiko enpresek osatutakoa da. Horiek kasu askotan ez dute instalatzeko inolako jarduerarik burutzen, mantentze- eta konpontze-lanak egitera mugatzen dira. Kasu horretan, horien jardun eremua eta eragina askoz mugatuagoak dira, eta oro har eskualde edo toki mailan aritzen dira lanean.

Enpresa guztiak kontuan hartuta, estimatzen da Estatu osoan 400 enpresatik gora ari direla lanean. Lehiaren Defentsarako Zerbitzuak adierazten duenez, administrazioaren erregistroa alde batera utzita, ez dago inolako oztoporik merkatu honetan jarduteko; eta egoera hori egiaztatzen da «operadore berriak maiz sartzen direlako merkatuan... askotan sektore honetako enpresetan aritutako teknikariak edo langileak dira, eta hartutako eskarmentuaz baliatuta, mantentze-zerbitzuak ematen dituen beren enpresa propioa sortzeko erabakia hartzen dute. Oro har, enpresa txikiak izaten dira, eta dituzten baliabide mugatuekin, mantentze-zerbitzuak eskaintzen dituzte prezio lehiakorretan, era horretan eskaintza handituz»³⁴.

5.2. Sektorearen egoera EAE-n

Epigrafe honetan lehendabizi EAEko instalazio eta mantentze-lanen merkaturen dimentsionamenduari heltzen zaio, hurrenez hurren; jarraian, merkatu horietako bakoitzaren egiturarekin eta kontzentrazio mailaren ezaugarri nagusiak ematen dira; azkenik, merkaturen arteko benetako integrazio mailaren inguruko lehenengo hausnarketa egiten da.

Produktuaren lehenengo dimentsioarekin batera –instalazio eta mantentze-lanen merkatura, hurrenez hurren– analisiak horien lurralde dimentsioari heltzen dio etengabe, informazioak eta analisia lurralde historikoen arabera bereiziz.

5.2.1. Instalazioaren merkaturak: dimentsionamendua eta bilakaera

2006. urtearen bukaeran EAEko igogailuen kopurua 44.708ra iristen zen. Kopuru horren zatirik handiena, %85, etxebizitzetara dagokie; segmentu horren bi heren 4 geldialditik gora egiten diren eraikinei dagokie. Erabilera publikoko igogailuak kopuru osoaren %12 dira, eta erabilera industrialak eta partikularak (familia bakarreko eraikinak) %2 eta %1 baino ez dira, hurrenez hurren.

³⁴ LDZren txostena, N-05050 ORONA/ELECTRA

Lurraldeka, Bizkaiak EAEko igogailuen erdia baino zertxobait gutxiago hartzen du (%48); Gipuzkoaren kasuan %35 da eta Arabaren kasuan %17; hiru lurraldeetan aipatutako erabilera horien pisua EAerako oro har deskribatutako pisuaren isla da, gutxi gorabehera.

5.2. koadroa
EAEko igogailu-kopuruak (2006ko abenduaren 31 bitarte)

Erabilera	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Instalaturako igogailuak ³⁴	Segmentuaren pisua EAEn
Publikoa	764	2.667	1.810	5.241	%12,0
Etebizitzak (4 geldialdi ↑)	3.020	12.227	9.968	25.215	%56,3
Etebizitzak (4 geldialdi ↓)	3.573	5.750	3.434	12.757	%28,5
Industrialak	80	422	436	938	%2,0
Partikularra	82	281	194	557	%1,2
Guztira	7.519	21.347	15.842	44.708	%100,0

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Industria, Merkataritza eta Turismo Saila. Bertan egindakoa.



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Industria, Merkataritza eta Turismo Saila. Bertan egindakoa.

Igogailu kopuruaren bilakaera historikoak argi adierazten du bilakaera horrek higiezinaren merkatuarekin izan duen harremana, eta, era berean, erakutsi egiten du ekipamendu hau gero eta gehiago sartzen dela bi solairutik gorako eraikinetan.

³⁵ Euskal Autonomia Erkidegoan instalaturako igogailuei buruzko estatistikatik lortutako datua. 1967tik 2006ko abenduaren 31 bitarteko serie historikoa + 1967. urtea baino lehen instalaturako igogailuen stock akumulatua.

Hain zuzen ere, 1971etik 2006ra bitarte –azken 36 urteetan– EAEn batez besteko urteko instalazio kopurua 1.047 unitate inguru/urteko izan da (Ikus 5.3. koadroa). Instalazio erritmo hori 70eko hamarkadan izandakoaren oso antzekoa da (1.036 unitate/urteko). 80ko hamarkadan ratio hori %40 inguru jaitsi zen (650 unitate/urteko), eta, 90eko hamarkadaren hasieran berriro gora egin zuen adierazitako batez bestekoaren ingurura iritsi arte (1.060 unitate/urteko). Baina, azkeneko hamarkadatik aurrera, 1996tik aurrera hain zuzen ere, higiezinaren boom nabarmena ezagutu zen igogailuen merkatuan, eta 1.549 unitate/urteko kopurutik gorako erritmoetara iritsi arte (ratio hori 90eko hamarkadako lehenengo erdiaren 1,5 aldiz handiagoa da eta 80 hamarkadako urteetako ratioa baino 2,4 aldiz handiagoa); horrela, zalantzarik gabe, sektore honek enpresa hazkunde handiko etapa bizi izan du. Bizkaiak ezagutu du hazkunderik handiena, %55eko hazkundera hain zuzen ere.

5.3. koadroa					
EAEn instalatutako igogailuen historikoa (urteko batez bestekoa)					
Epea	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE	Hazkundera EAEn
1967 - 1970	140,75	247,5	106,7	495	–
1971 - 1980	200,4	613,6	222,5	1.036,5	%115
1981 - 1991	157,0	338,0	155,0	650	%39
1992 - 1996	169,25	433,2	458,0	1060,5	%63
1997 - 2006	219,7	670,7	659,3	1.549,7	%46

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Industria, Merkataritza eta Turismo Saila. Bertan egindakoa.

2001-2006 bosturtekoa aztertuz gero (5.4. koadroa), higiezinaren arloan bereziki dinamikoak, egiaztatzen da EAEn instalatutako unitateen urteko batez bestekoa 2000ko kopuruan dagoela. Egoera hori hiru lurralde historikoetan ematen da, epe horretako urteetan hainbat nabardura desberdin ematen badira ere.

2001-2006 bosturtekoan higiezinaren merkatuaren dinamika zeharo baldintzatu du igogailuen instalazioa, eta mendekotasun hori argi antzematen da zegoeneko eraikita zeuden etxebizitzetan igogailua berritzeagatik instalatu ziren igogailu kopuru eskasean. 2006. urtean instalatu ziren 2.058 unitateetatik, 120 bakarrik, hau da %6, instalatu ziren igogailu zaharra aldatzeko edo berritzeko.

5.4. koadroa							
Instalazioaren merkatua EAEko lurralde historikoetan, unitate fisikoetan adierazita							
Lurralde historikoa	Instalaturako igogailu kopurua, urteko					2006. urtearen xehetasunak	
	2002	2003	2004	2005	2006	Higiezinaren sustapena	Berritzeak
Araba	262	189	232	263	345	328	17
Bizkaia	912	880	988	851	845	808	37
Gipuzkoa	852	903	796	747	868	802	66
EAE	2.026	1.972	2.016	1.861	2.058	1.938	120

Iturria: Eusko Jaurlaritzak. Industria, Merkataritza eta Turismo Saila. Bertan egindakoa.

Instalazioaren merkatuari buruzko estimazioa, diru unitateetan

Arestian deskribatutako instalazioaren merkatuaren dimentsionamendu fisikoari begiratuz gero, eta igogailu bakoitzaren prezioa eta instalazioaren batez besteko kostea 24.000³⁶ euro/unitate bakoitzeko delako hipotesiarekin lan eginez gero, esan liteke 2006an EAEko instalazioaren merkatuaren magnitudea gutxi gorabehera 49 milioi eurokoa izan zela. Eraikuntza berriaren segmentuak, 46 milioi euroko bolumenarekin, merkatu horren zati garrantzitsuen hartzen du.

5.5. koadroa			
Instalazioaren merkatu estimatua EAEko lurralde historikoetan, diru-unitateetan adierazita			
Lurralde historikoa	2006. urteari buruzko xehetasunak (€ milakoetan)		2006ko instalazioak GUZTIRA (€ milakoetan)
	Higiezinaren sustapena	Berritzeak	
Araba	7.872	408	8.280
Bizkaia	19.392	888	20.280
Gipuzkoa	19.248	1.584	20.832
EAE	46.512	2.880	49.392

Iturria: Eusko Jaurlaritzak. Industria, Merkataritza eta Turismo Saila. Bertan egindakoa.

5.2.2. Mantentze- eta konpontze-lanen merkatua: dimentsionamendua eta bilakaera

Igogailua zerbitzuan jarri ahal izateko mantentze-kontratua sinatu behar izateak lotura sortzen du merkatu horren dimentsioaren eta igogailu kopuruaren bilakaeraren artean. Ildo horretan, 2006. urtean mantentze- eta konpontze-

³⁶ Lanerako hipotesia da, sektoreko adituekin aztertutako eta onartutako batez besteko kosteetan oinarritua.

merkatuak 44.616³⁷ unitate zituen, gorago adierazitako lurralde banaketari kasu eginez gero.

Instalazioaren merkatua higiezin zikloaren mende dago, eta mantentze- eta konpontze-merkatua, ordea, oso egonkorra da, eta urteko hazkunde erritmoa baino ez dago higiezin sektorearen mende. 2006. eta 2007. urteen artean eta etxebizitzaren eraikuntzan izandako gorakada kontuan izanik, mantentze-kontratuen kopurua %5 hazi zen, kopuru handiena Gipuzkoan lortuta (%6). Merkatu horrek izandako urteko hazkundearen erritmoa bat dator igogailuen kopuruan izandako igoerarekin.

5.6. koadroa				
Kontserbatze- eta mantentze-merkatua EAEko lurralde historikoetan				
Lurralde historikoa	Kontserbatutako igogailuak, urteka		2006 2007 urteetako balorazioa	2007ko pisu erlatiboa
	2006	2007		
Araba	7.194	7.539	%4,8	%17,0
Bizkaia	20.679	21.524	%4,0	%48,0
Gipuzkoa	14.685	15.553	%6,0	%35,0
EAE	42.558	44.616	%5,0	%100,0

Iturria: Eusko Jaurlaritzak. Industria, Merkataritza eta Turismo Saila. Bertan egindakoa.

Merkatuan igogailuetarako mantentze-kontratu mota ugari aurki daiteke. Hala eta guztiz ere, adieraz daiteke enpresa kontserbatzaileek eskaintzen dituzten mantentze-kontratu mota nagusienak bi direla, hain zuzen ere oinarritzko mantentze-kontratuak (osagaiak higatzeagatik egin beharreko konponketak bere gain hartzen ez dituenak) eta arrisku guztietarako kontratuak, bere gain hartzen duena, edo ez, guardiako zerbitzua (jai egunetan) edo eguneko 24 orduetan zerbitzua ematea.

Testuinguru heterogeneo horretan, eta hipotesizat hartuta igogailu bakoitzaren mantentzea urteko 2.500 eurokoa³⁸ dela batez beste, esan liteke mantentze-merkatuaren dimentsioa 111 milioi eurotik gertuko magnitude batean koka daitekeela, hau da, instalazioaren merkatuaren halako 2,3 dela. Kopuru hori %20 inguru³⁹ handi liteke gutxi gorabehera, mantentze-kontratuak jasotzen ez diren edo kontratuak bere gain hartzen ez dituen konponketak kontuan hartuz gero.

³⁷ Datu hori 5.2. koadroan emandako kopuruarekin alderatuz gero 92 unitateko aldea dagoela ikusten da, Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak estatistika ezberdinak erabiltzearen ondorioz.

³⁸ Lanerako hipotesia da, sektoreko adituekin aztertutako eta onartutako batez besteko kosteetan oinarritua.

³⁹ DBK-k igogailuei buruz egindako azterketaren arabera (2006ko abendua-10. argitalpena) estimatzen da mantentze-merkatuaren %20 konponketa lanek osatutakoa dela.

5.7. koadroa

Kontserbatze- eta mantentze-merkatu estimatua EAEko lurralde historikoetan (konponketak barne), diru-unitateetan adierazita

Lurralde historikoa	Kontserbazioa eta konponketak (€ milakoetan)	
	2006	2007
Araba	21.582	22.617
Bizkaia	62.037	64.572
Gipuzkoa	44.055	46.659
EAE	127.674	133.848

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Industria, Merkataritza eta Turismo Saila. Bertan egindakoa.

5.2.3. Igogailuen merkatua Euskal Autonomia Erkidegoan

Orain arte bi merkatu nagusienei buruz aurkeztutako informazioak batuz gero –instalazioarena eta mantentzearena–, EAEn 2006an igogailuen merkatua dirutan guztira 177 milioi eurotan kuantifika daiteke.

Mantentzea eta kontserbatzea merkatuaren funtsa dira, adierazten diren kopuruek jasotzen dutenez: sortutako euroen %72 dira, instalazioak sortzen duen %28aren aurrean.

Horri gaineratu behar zaio merkatu egonkorra dela; instalazioaren merkatua, ordea, askoz aldakorragoa da eta higiezinaren merkatuaren zikloi askoz lotuago dago.

5.8. koadroa

Sektoreko partzialen laburpena lurralde historikoaren arabera. 2006. urtea

Segmentua/Lurraldea	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE
Fabrikazioa – instalazioa (instalaturako igogailu kop., u. fisikoak)	345	845	868	2.058
Fabrikazioa – instalazioa (instalaturako igogailu kop., estimaturako € kop. milakoetan)	8.280	20.280	20.832	49.392
Mantentzea- eta kontserbatze-lana (igogailu kop., u. fisikoak)	7.194	20.679	14.685	42.558
Mantentzea- eta kontserbatze-lana (igogailu kop., estimaturako € kop. milakoetan)	21.582	62.037	44.055	127.674
Unitate fisikoak GUZTIRA	7.539	21.524	15.553	44.616
% Fabrikazioa – instalazioa	%5	%4	%6	%5
% Mantentzea eta kontserbatzea	%95	%96	%94	%95
GUZTIRA estimaturako € kop., milakoetan	29.862	82.317	64.887	177.066
% Fabrikazioa – instalazioa	%28	%25	%32	%28
% Mantentzea eta kontserbatzea	%72	%75	%68	%72

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Industria, Merkataritza eta Turismo Saila. Bertan egindakoa.

Dimentsionamendu hori funtsezkoa da bi jardueren arteko –instalazioa eta mantentzea– harremanen dinamikak ulertu ahal izateko (hasiera batean merkatu independentetzat hartu dira) eta horren inguruan enpresek erakusten dituzten jarrerak eta interesak.

5.3. Sektoreko eskaintzaren kontzentrazioa eta integrazioa

Instalazioaren eta mantentze-merkatuen dimentsionamenduaren ondoren, hurrenez hurren, azterketa honen helburua da horietako bakoitzaren kontzentrazioaren egitura eta maila aztertzea, eskaintzaren ikuspegitik; horretarako, lurraldekako jardun eremua eta merkatuko kuoten banaketa aztertuko da. Analisi hori egin ondoren bi merkatuen arteko benetako integrazio bertikalaren eta EAEn lurraldeen arabera duten kontzentrazio mailaren inguruko emaitzak atera ahal zango dira.

5.3.1. Instalazioaren eta mantentze merkatuko operadoreak Euskal Autonomia Erkidegoan

Sektore baten kontzentrazioa deskribatzeko garaian kontuan hartzen da hiru lurralde historikoetan jarduten duen operadore kopurua, baita sektoreko bi segmentuetan lortutako merkatuko kuotaren arabera hartutako posizioak ere.

5.9. koadroak instalatzaile gisa diharduten operadoreen eta kontserbatze-enpresen zerrenda ematen digu, eta, aldi berean, enpresa horien jardun eremua deskribatzen du EAEko hiru lurralde historikoetarako. Era horretan, merkatu honetako parte diren lurraldekako kontzentrazioari eta enpresen integrazio bertikalaren mailari buruzko emaitzak atera ahal izango dira.

5.9. koadroa						
Instalazioaren eta kontserbazioaren operadoreak EAEn. 2006						
Operadoreak/Lurraldea	Araba		Bizkaia		Gipuzkoa	
	Inst.	Mant.	Inst.	Mant.	Inst.	Mant.
Ascensores Eguren,	x	x	x	x	x	x
Omega Elevator	x	x	x	x	x	x
Orona	x	x	x	x	x	x
Schindler	x	x	x	x	x	x
Thyssenkrupp Elevadores	x	x	x	x	x	x
Zardoya Otis	x	x	x	x	x	x
Kone Elevadores	x	x	x	x	x	
Beltran Ascensores y Montacargas			x	x	x	x
Esferli		x*	x	x*	x	x
Ulahi			x	x	x	x

5.9. koadroa (jarraipena)						
Instalazioaren eta kontserbazioaren operadoreak EAEn. 2006						
Operadores/Territorio	Álava		Bizkaia		Gipuzkoa	
	Inst.	Mant.	Inst.	Mant.	Inst.	Mant.
Ascensores Abando			X	X	X	
Servicio y mantenimiento gruas			X			
Arlan Jasogailuak			X			
Ascensores Durango			X	X		
Ascensores Izaro			X	X		
Ascensores Rekalde			X	X		
Ascensores unifamiliares avanzados			X	X*		
Ascensores Urbil			X	X		
Ascensores Vascos			X	X		
Eguzki – Mendi			X	X		
Indtr. Montañesas Eléctricas Mecanic			X			
Industrial de Elevación			X	X		
KAPAM Ascensores			X			
Muguerza e hijos			X	X		
IZA Ascensores	X	X	X	X		
Ascensores Gasteiz	X	X				
Electra Vitoria	X	X				X*
Ascensores Aguirrezabal Instal. y Mto.					X	X
Ascensores Muguerza				X*	X	X
Ascensores Sagastizabal					X	X
Electricidad Arrazola		X				
Ascensores de Marco		X				
Ascensores Cenía				X*		
IMEM				X		
Ascensores Bilbao				X*		
Ascensores Nervión				X*		
Ascensores Gorbea				X*		
Ascensores Barakaldo				X*		
Ascensores Bizkaia				X*		
Ascensores Albia				X*		
Ascensores Deusto				X*		
Díaz Bengoa, Faustino				X*		
Instal. Bizkaia Elec.. Int.				X*		
Ascensores Oierki				X*		X*
Arlan				X*		
Garitaonaindia, A.F. Zubillaga J.R.				X*		
Alimak				X*		
Ascensores Lagunak						X
Obea Ascensores						X
Artzai						X*
Ascensores Aguirrezabal, C.B.						X

* 2007. urtean utzi zion enpresa kontserbatzailea izateari.

Iturria: Eusko Jaurlaritzak. Industria, Merkataritza eta Turismo Saila. Bertan egindakoa.

Goiko zerrenda horrek erakusten du hiru lurralde historikoetan talde multinazional handien presentzia handia dela, baita horiek eskaintzen duten lan integrala ere; izan ere, hiru lurralde historikoetan eskaintzen dituzte balio katean adierazitako instalazio eta mantentze-zerbitzuak.

Aipatzekoa da tradizioz EAEren eremuan lurralde historiko bakar batean lanean jarduten duten eskaintzaileak daudela, batez ere mantentzearen merkatuan jarduten dutenak⁴⁰. Egoera hori Bizkaiko lurraldeko mantentze-eskaintzaren atomizazioaren bidez azal daiteke, baina joera hori indarra galtzen ari da, enpresa handiak tokiko enpresa txiki ugari erosten ari baitira; hain zuzen ere, tokiko enpresa asko 2007. urtean zegoeneko ez ziren mantentze-merkatuaren partaide gisa agertzen.

EAE osoan 2006-2007 epean mantentzearen merkatuan eskaintzaile kopuruan beherakada eman zen, merkatuko enpresen artean izandako mugimenduen ondorioz, fusioak edo hitzarmenak, esate baterako. Aipatu bilakaera negatibo horretan, kopurutan adierazita EAEen %31ko jaitsiera izango litzateke, eragin handia izan du Bizkaiko lurralde historikoan emandako joerak.

5.10. koadroa							
EAEko mantentze-merkatuaren enpresa kopuruaren bilakaera. 2006-2007							
Araba		Bizkaia		Gipuzkoa		EAE	
2006	2007	2006	2007	2006	2007	2006	2007
13	12	37	20	18	15	68	47
Bilakaera		Bilakaera		Bilakaera		Bilakaera	
%8		%46		%17		%31	

Iturria: Eusko Jaurlaritzak. Industria, Merkataritza eta Turismo Saila. Bertan egindakoa.

Nahiz eta Bizkaian operadore kopuruak nabarmen atzera egin, oraindik ere Bizkaia da mantentze-merkatuan enpresa eskaintzaile kopuru handiena duen lurralde historikoa. Araba, ordea, merkatuan operadore gutxien dituen lurraldea da, baita bere bilakaeran jaitsiera txikiena ezagutu duena ere.

Adierazitako kopuruak EAEko instalazio eta mantentze-merkatuetan ematen diren mugimenduen adierazgarri dira⁴¹. Azken urteetan operazio eko-

⁴⁰ Antzeko ondorioa ateratu du LBNk Kontzentrazio Ekonomikorako C108/07 ORONA/ASCENSORES GASTEIZ espedientearen txostenean.

⁴¹ Adibide moduan, izandako bilakaera negatiboa ulertzen lagunduko diguten jarduerak aipa daitezke. Thyssenkrupp taldeak hitzarmenak sinatu ditu toki mailako enprekin Bizkaia eta Gipuzkoako lurralde historikoetan, Garitaonandia eta Oierki, esaterako, edo beretu egin ditu Barakaldo, Cenia eta Gorbea bezalako enpresak, 2006. urtean Bizkaian mantentzearen merkatuan ziharduten hiru enpresa.

nomiko ugari izan dira, hala nola lankidetzarako hitzarmenak, fusioak eta beretzeak edo mantentze bezeroen zerrenda balioan jarri duten enpresen salerosketa.

5.3.2. Merkatuko kuotak instalazioan

EAEko bi merkatu horietako eskaintzaileak zein diren eta lurralde historikotan bakoitzaren presentzia zein den jakin ondoren, interesgarria litzateke eragile horien parte hartzearen berri izatea, dagoen kontzentrazio maila ikusi ahal izateko.

5.11. koadroa								
EAEko enpresa instalatzaileak 2006. urtean. Merkatuko kuotak								
Operadorea	Araba		Bizkaia		Gipuzkoa		EAE	
	Rankinga	%	Rankinga	%	Rankinga	%	Rankinga	%
ORONA	1.	>20	2.	[10-15]	1.	>20	1.	>20
THYSSENKRUPP	6.	[5-10]	1.	[15-20]	4.	[5-10]	2.	[10-15]
ULAHÍ		–	8.	[0-5]	2.	[15-20]	3.	[5-10]
ZARDOYA OTIS	8.	[5-10]	4.	[5-10]	3.	[5-10]	4.	[5-10]
EGUREN	9.	[0-5]	3.	[10-15]	8.	[0-5]	5.	[5-10]
OMEGA ELEVATOR	3.	[10-15]	6.	[5-10]	7.	[0-5]	6.	[5-10]
IZA ASCENSORES	5.	[10-15]	5.	[5-10]	–	–	7.	[5-10]
SCHINDLER	7.	[5-10]	7.	[0-5]	9.	[0-5]	8.	[0-5]
BELTRAN ASCENSORES Y MONTACARGAS	–	–	9.	[0-5]	5.	[5-10]	9.	[0-5]
ELECTRA VITORIA	2.	[15-20]	–	–	–	–	10.	[0-5]
ASCENSORES GASTEIZ	4.	[10-15]	–	–	–	–	11.	[0-5]
ASCENSORES SAGASTIZABAL		–	–	–	6.	[5-10]	12.	[0-5]
RESTO		[0-5]		>20		[10-15]		[15-20]

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Industria, Merkataritza eta Turismo Saila. Bertan egindakoa.

Horretaz gain, Bizkaian azpimarratzekoak dira Kone-ren mugimenduak. Enpresa horrek 2007. urtean Ascensores Bilbao eta Ascensores Nervión enpresak aglutinatzen zituen eta Gipuzkoako merkatuan Muguerzarekin jardun zuen. Bere aldetik, Orona enpresa gipuzkoarrak harremana zuen Esferli, Ascensores Bizkaia, Ascensores Deusto eta Albiarekin, eta Orona taldearen barruan Ulahi integratu zuen. Arabako lurralde historikoan, Oronak bere taldean Electra Vitoria operadora integratu zuen eta Ascensores Gasteiz enpresaren kontrol eskklusioa hartu zuen. Zardoya Otis-ek ere antzeko jarduerak burutu zituen, Ascensores Vascos edo Eguren-Kone bezalako enpresekin. Eguren-Kone» enpresaren kasuan (enpresak merkatu izena mantentzen du, dagoeneko Finlandiako Kone enpresaren barruan ez badago ere) osagaiak Zardoya-Otis taldearen barruan fabrikatzen ditu eta Eguren-Kone izena erabilia instalatzen ditu.

Lehenengo lau enpresa handiek EAEko instalazioaren merkatuaren %50etik gora erregistratu zuten 2006. urtean, 25 milioiko kopurutik gorako bolumena hartuta. Multinazionalen nagusitasuna nabarmena da oso.

Intuitiboki, kontzentrazio/atomizazio maila lurraldeen arabera heterogeneoa da, Arabak kontzentrazio maila altuena du, eta Bizkaiaren merkatua atomizatuago dago. Arabaren kasuan, lurralde horretan bakarrik aritzen diren operadoreak daude, barruko merkatuaren zati garrantzitsua hartzen dutenak. Bizkaian eta Gipuzkoan igogailuen merkatuaren enpresa handiak dira garrantzitsuenak.

Herfindahl-Hirschman Indizea (HHI) erabilia, kontzentrazio erreala zehatzago esplikatu daiteke. Adierazlearen balioak literatura espezializatuan eta horri buruzko Estatu Batuetako praktikan normalean erabiltzen diren tarteak erabilia interpretatzen dira⁴².

5.12. koadroa		
Herfindahl-Hirschman kontzentrazio mailak, lurraldeen arabera (10.000 oinarriaren gainean)		
Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
1.400	900	1.600

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Industria, Merkataritza eta Turismo Saila. Bertan egindakoa.

5.12. koadroan ikus daitekeenez, Bizkaiko instalazioaren merkatuaren ezau-garri nagusia kontzentrazio maila baxua izango litzatekeen bitartean, Araba eta Gipuzkoan kontzentrazioa erdi mailakoa izango litzateke.

Hala eta guztiz ere, ratio horiek operadoreen zerrenda egin ondorengo kontzentrazio kalkulari dagozkio, operadore horien artean dauden aliantza edota merkataritza mendekotasunak aintzat hartu gabe. Adibide gisa, aipa daiteke sortzen diren aliantza eta enpresa loturak kontuan hartuz gero emaitzak askoz altuagoak izango liratekeela. Horiek horrela, Gipuzkoan instalazioaren merkatuak kontzentrazio maila altua izango luke -2.700 puntu-. Beste alde batetik, Araban kontuan hartuko balira lortuko litzatekeen balioa 3.100 puntukoa izango litzateke, EAEko instalazioaren merkatuko gorengo maila.

⁴² 10.000ko oinarriaren gainean, kontzentrazio maila ondorengo eran sailkatzen da:

- 1.000tik beherako HHI adierazlea, kontzentrazio maila baxutzat hartzen da
- 1.000 eta 1.800 bitarteko HHI, erdi mailako kontzentraziozat hartzen da
- 1.800di gorako HHI kontzentrazio altua dela kontsideratzen da.

5.3.3. Merkatuko kuotak mantentze eta konpontze merkatuan

5.13. koadroa								
Enpresa mantentzaileak eta konpontzaileak EAEn 2007. urtean. Merkatuko kuotak								
Operadorea	Araba		Bizkaia		Gipuzkoa		EAE	
	Rankinga	%	Rankinga	%	Rankinga	%	Rankinga	%
ORONA	3.	[10-15]	3.	[10-15]	1.	>20	1.	[15-20]
ZARDOYA OTIS	5.	[5-10]	1.	>20	4.	[10-15]	2.	[15-20]
THYSSENKRUPP	8.	[0-5]	2.	[15-20]	2.	[15-20]	3.	[10-15]
ELECTRA VITORIA	1.	>20	-	-	-	-	4.	[5-10]
SCHINDLER	7.	[0-5]	4.	[5-10]	6.	[5-10]	5.	[5-10]
KONE ELEVADORES	9.	[0-5]	6.	[5-10]	-	-	6.	[5-10]
ASCENSORES MUGUERZA	-	-	-	-	3.	[10-15]	7.	[0-5]
IZA ASCENSORES	6.	[5-10]	4.	[5-10]	-	-	8.	[0-5]
IMEM	-	-	5.	[5-10]	-	-	9.	[0-5]
ULAHÍ	-	-	-	-	5.	[5-10]	10.	[0-5]
OMEGA ELEVATOR	4.	[5-10]	3.	[0-5]	7.	[0-5]	11.	[0-5]
ASCENSORES GASTEIZ	2.	[10-15]					12.	[0-5]
RESTO		[0-5]		>20		[5-10]		[10-15]

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Industria, Merkataritza eta Turismo Saila. Bertan egindakoa.

Lehenengo hiru enpresek EAEn 2007ko mantentze-merkatuaren erdiaren inguru biltzen dute, 65 milioi €tik gora estimatutako bolumen batekin. Azpimarratzekoa da mantentze-merkatuaren operadoreen artean multinazional handiak daudela.

Lurraldean araberako analisisian azpimarratu behar da Arabako merkatuaren zati handiena bi enpresak biltzen dutela, bien artean merkatuaren erditik gora hartuta. Azkenik, Bizkaiko eta Gipuzkoako merkatuko kuotan multinazional handiek presentzia handia dutela adierazi behar da.

Agerian dago enpresa handiek sektorean duten garrantzia, merkatuaren erditik gorako kuotak hartuta, baita operadore kopuru txiki batek duen protagonismoa ere.

Herfindahl-Hirschman Indizea (HHI) erabilia, benetako kontzentrazio erreala hobeto ezagutu daiteke, eta, ezarritako parametroen arabera, merkatua kontzentratua den ala ez esan daiteke.

5.14. koadroa. Herfindahl-Hirschman kontzentrazio mailak lurraldeen arabera (10.000 oinarriaren gainean)		
Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
2.500	1.200	2.000

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Industria, Merkataritza eta Turismo Saila. Bertan egindakoa.

Mantentze-merkatuan aztertutako HHI adierazleak askoz altuagoak dira instalazioaren merkatuan antzemandakoak baino, eta kasu honetan ere diferentziak sumatzen dira lurralde historikoen artean. Hori horrela, Bizkaiak 1.200 puntuko kontzentrazio mailarekin erdi mailako kontzentrazioa izango luke, eta Gipuzkoa eta Araba, bere aldetik, 2.000 eta 2.2500 punturekin, hurrenez hurren, oso merkatu kontzentratutzat har litezke.

Instalazioaren kasuan bezalaxe, ratio horiek operadoreen zerrenda egin ondorengo kontzentrazio kalkuluari dagozkio, operadore horien artean dauden aliantza edota merkataritza mendekotasunak aintzat hartu gabe. Aliantza horiek analisisian kontuan hartzeak ekarriko lituzkeen aldaketan adibide bat ematearren, aipa daiteke Gipuzkoan adierazlea 2.600 puntutan kokatuko litzatekeela. Arabak mantentze-merkatuaren kontzentrazio maila altuena izango luke.

Laburbilduta, analisi honek egiaztatu baino ez du egiten EAeko lurraldeetan diharduten operadoreen zerrendari eta lortzen dituzten kuotei buruzko azterketan adierazitakoa, eta ibilbide historikoarekin eta lurralde bakoitzean merkatua sortzearekin zerikusia duten lurralde protagonismo profil desberdinak azpimarratu egiten ditu.

5.3.4. Merkatuko kuotak eta dimentsio ekonomikoa. Bi merkatu garrantzitsuenen fusioa

5.15. koadroan merkatuaren dimentsioa azaltzen saiatu gara, baita instalazioaren eta mantentzearen alorretan lanean aritzen diren enpresa operadoreek sortutako bolumen ekonomikoa berri ematen ere. Antzeman daitekeenez, praktikan merkatu bateko zein besteko firma operadoreek gero eta garrantzi handiagoa dute.

Merkatuko kuoten irakurketa egiterakoan merkatuan ematen diren mugimendu estrategikoak kontuan izanez gero, emaitza kontzentrazio maila altuagoko ikuspegia izango genuke.

5.15. koadroa
Instalazioaren (2006) eta mantentzearen (2007) merkatuak agregatetik sortutako merkatuko kuotak

Operadorea	INSTALAZIOA		MANTENTZEA		INSTALAZIOA + MANTENTZEA	
	Inst. u. fisikoak	Inst. € kop., milakoetan	Mant. u. fisikoak	Mant. € kop., milakoetan	€ kopurua GUZTIRA	Merkatuko kuota (%€)
ORONA	>300	>7.200	>7500	>18.750		>20
ZARDOYA OTIS	[100-200]	[2.400-4.800]	>7500	>18.750		[15-20]
THYSSENKRUPP	[200-300]	[4.800-7.200]	[5000-7500]	[12.500-18.750]		[10-15]
ELECTRA VITORIA	[0-100]	[0-2.400]	[2500-5000]	[6.250-12.500]		[5-10]
SCHINDLER	[0-100]	[0-2.400]	[2500-5000]	[6.250-12.500]		[5-10]
ULAHI	[100-200]	[2.400-4.800]	[0-2500]	[0-6.250]		[5-10]
KONE	-		[2500-5000]	[6.250-12.500]		[0-5]
IZA ASCENSORES	[100-200]	[2.400-4.800]	[0-2500]	[0-6.250]		[0-5]
OMEGA ELEVATOR	[100-200]	[2.400-4.800]	[0-2500]	[0-6.250]		[0-5]
ASCENSORES MUGUERZA	-		[0-2500]	[0-6.250]		[0-5]
IMEM	-		[0-2500]	[0-6.250]		[0-5]
EGUREN	[100-200]	[2.400-4.800]	-			[0-5]
ASCENSORES GASTEIZ	[0-100]	[0-2.400]	[0-2500]	[0-6.250]		[0-5]
BELTRAN ASCENSORES Y MONTACARGAS	[0-100]	[0-2.400]	-	-		[0-5]
ASCENSORES SAGASTIZABAL	[0-100]	[2.400-4.800]	-	-		[0-5]
RESTO	>300	>7.200	[5000-7500]	[12.500-18.750]		[10-15]
GUZTIRA		49.392		132.834	182.226	100%

*2006ko datuak **2007ko datuak

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Industria, Merkataritza eta Turismo Saila. Bertan egindakoa.

5.3.5. Mantentze-kontratuak faktore estrategiko gisa

Mantentze-kontratua sinatzea derrigorrezkoa da RAE erregistroan inskribatutako igogailu guztietarako, eta nahitaezko baldintza da aparatua funtzionamenduan jarri ahal izateko.

Lehiaren defentsarako ikuspegitik, aipatu mantentze-kontratua fabrikatzailearen eta mantentzailearen arteko integrazio bertikala ahalbide dezakeen bitartekoa izan daiteke. Igogailua zerbitzuan jartzeko kontratua sinatzea derrigorrezkoa dela kontuan izanda, enpresa instalatzaileak mantentze-merkatuan

sartzeko aukera handia izango luke. Egiaztatu ahal dugunez, kasu askotan kontratua instalazioa burutu zuen enpresa berarekin sinatzen da.

Beste alde batetik, kontratuen ezaugarriak elementu estrategiko dira; izan ere iraupen luzeko epeak, luzapen esangabeak, informazio asimetriak eta kontratua deuseztatuz gero aplikatzen diren zigor klausulak daude, eta horiek guztiek transakzio kosteak sendotu eta beste operadore batzuei merkatuan sartzeko oztopoak handitzen dizkiete. Horretaz gain ezaugarri horiek mekanismo gisa baliatzen dira, lehiak intentsitate txikiagoa izan dezan.

Analisi honetan sakontzeko asmoz, guztira 17 enpresari dagozkien 37 mantentze-kontratuen gaineko informazioa bildu da⁴³, deskribatutako errealitatea eta kontratuak merkatuaren faktore estrategiko gisa duen garrantzia egiaztatzea helburu hartuta.

Guztira aztertutako 37 kontratu horietatik, 29tan fabrikatzailea eta mantentzailea bera dira (%78).

Kontratuen %43ren iraupena 5 urtekoa da, hau da, moda edo balio ohikoena da 5 urteko kontratuak sinatzea, kontratuen batez bestekoa 3 urtekoa bada ere. %24 urtebeteko iraupeneko kontratuei legokieke, eta gainerako %33, berriz, 3 eta 2 urteko iraupena duten kontratuak izango lirateke, gehienbat 3 kontratuak izanik.

Aparatu/instalazioen heterogeneotasuna dela eta, zaila da prezioen analisia egitea, zaila baita aparatu eta instalazioak konparatzea. Horretaz gain, eskaintzen dituzten estaldurak ere ez dira antzekoak (kontratu batzuek, esaterako, ez dute arrisku guztietarako zerbitzua eskaintzen).

Azkenik, lehiaren kaltetan jokatzan duten elementu gisa aipa daitezke batez ere operadore handiek kontratuei eransten dizkieten klausula batzuk:

- Kontratua esan gabe luza daiteke, aldeek ez badute aldez aurretik kontratua eteten.
- Kontratua esan gabe luza daiteke, aldeek ez badute aldez aurretik kontratua eteten, eta deuseztatzeko klausulan kalteen balorazio gisa ezartzen bada alde bakar batek kontratua hautsi duen momentutik aurrera ordaindu beharreko mantentze-lanaren kopuruaren %50eko kalte-ordaina ordaindu behar dela, kontratuaren bukaera data iritsi arte, eta oinarri hartuta kontratua hautsi den epeari dagokion ordaindutako azken diru kopurua.

⁴³ Laginaren tamaina txikia kontuan hartuz gero ez du balio zientifikorik.

LEHIA ASKEAK DITUEN OZTOPOEI BURUZKO ANALISIA

6. LEHIA ASKEAK DITUEN OZTOPOEI BURUZKO ANALISIA

6.1. Instalazioaren eta mantentze lanaren arteko integrazio bertikala

Sektore jakin bateko egitura bertikal egokienari buruzko erabakia enpresek haien artean garatzen dituzten jardueren koordinazioak koste gehigarriak izateak ala ez baldintzatzen du («*uraz goiti* edo *uraz beheiti*»).

Enpresaren egitura bertikalari buruzko teoria ekonomikoak⁴⁴ dioenez, sektore bateko egitura bertikal egokiena kontratuek bere gain hartzen dituzten kontraprestazioen izaeraren mende dago. Batez ere, berebiziko garrantzia duten hiru elementu daude:

- Transakzio kosteak: lankidetzaren bertikalaren kontratuen negoziazio kosteak adierazten dituzte. Kostu horiek zenbat eta altuagoak izan, integrazioaren pizgarria orduan eta handiagoa izango da.
- Kontratugileen arteko informazio inperfektuaren maila: kontratuak praktikan jartzeari eta bete diren ala ez egiaztatzeari eragiten dio. Berrero ere, kontratuaren betetze maila zein den egiaztatzeko zailtasuna zenbat eta handiagoa izan, orduan eta pizgarria handiagoa izango da integrazio bertikala gauzatzeko.
- Lotura duten merkatuak bereganatzeko aukerak eta pizgarriak.

Lehenengo bi gaiak antolaketaren eragingarritasunari dagozkion bitartean, hirugarrenak, ordea, integrazioaren abusuaren aukera kontentzen du.

Era berean⁴⁵, Europako Batzordearentzat integrazioa ez da kezkarria baldin eta ez bada merkatua «*uraz beheiti*» bereganatzen. Lotura duten merkatuak integrazio bertikala gauzatzearen ondorioz monopolizatzeko patologia larriak sortzen ditu lehiaren ikuspegitik. Patologia horiek ekiditeko beharrezkoa da kontsumitzaileak bigarren mailako produktuen ordezkatzeko esanguratsua izatea edo produktuen ezaugarriek kontsumitzailearen erantzun azkar eta zuzena ahalbidetzea, bigarren mailako produktuen prezioen igoerak izanez gero.

⁴⁴ PERRY, M. «Vertical Integration: determinants and effects» in SCHAMALENSEE, R. and WILLIG, R. (eds) Handbook of Industrial Organization, 1989.

⁴⁵ Europako Batzordeak aukera izan du merkatu nagusiaren eta merkatu sekundarioaren integrazio bertikal eta mendekotasun mailaren gairi heltzeko lehiaren gairaren inguruan araudi komunitarioa sortzeko asmoz egindako erreferentziako merkatuaren definizioari buruzko Komunikazioan (1997ko abenduaren 9ko 97/C 372/03. DOCE C 372 Komunikazioa).

Ildo horretan bertan sakondu zuen dagoeneko ez dagoen LDA⁴⁶ erakundeak, orain CNC denak, instalazioaren eta mantentze-lanaren arteko integrazio bertikalaren arazoa planteatu zuenean: «*enpresa handiak, kontserbatzaileak izateaz gain fabrikatzaileak eta instalatzaileak direnak, duten nagusitasunaz balaituta igogailuaren kontratazioa egiterakoan epe luzerako bezeroak bereganatuko lituzkete mantentze- eta konpontze-zerbitzuak emateko, horiek baitira eskaintzen duten zerbitzuaren zatirik garrantzitsuena. Iraupen luzeko kontratuak inposatuta bezero zerrenda ziurtatuko lukete, hain zuzen ere mantentze-zerbitzuen merkatuaren lehia- ren baldintzetatik salbu egongo litzatekeena, enpresa txikiak alde batera utzita*». Eta analisi horretako emaitzak berresten ditu Orona/Ascensores Gasteiz⁴⁷ txostenean operazioaren onarpena baldintzatzen baitu, bezeroekin sinatutako kontratuak deuseztatzeko eskaintza egin behar dela esanda, baita enpresa lehiakideei mantentzen dituen igogailuei buruzko informazioa eman behar diela esanda ere.

Egindako landa lanean Bizkaiko eremurako igogailuen sektorerako errepi- kapen adierazlea antzeman daiteke⁴⁸: aztertutako 11 kontratuetatik, 6 kontratutan fabrikatzailea eta mantentzailea bera dira (%54), eta 5 kontratutan ez, azken horietan mantentze-lana fabrikatzailea ez den enpresa batekin kontratatu delako (%46). Ez dago jasota igogailuen berme erregimenak bere gain bi faseen arteko lotura handiagoa hartzea. Kopuru horiek, beste sektore batzuekin alderatuta (aipatzekoa da metalurgia sektorean errepi- kapen adierazlea %20 eta %30 artean kokatzen dela), gorago integrazio bertikalaren teoria ekonomikoan deskribatu dugun merkatu lotuak mono- polizatzeke nolabaiteko patologiarene bat adieraz dezake, hain zuzen ere indartuko litzatekeena mantentzaileak desagertzen ari direlako, dagoeneko 5.9. koadroan azaldu denez.

Datu ekonomikoak kontuan hartuz gero, ondorioa da instalazioaren merkatu- an posizio onena duen enpresa ez dela beti mantentze-lanean liderra izaten, baina bi merkatuetan bai dago zerikusi handia merkatuko kuota desberdinen artean.

⁴⁶ 1992ko azaroaren 5an LDAk emandako ebazpenean (316/92 espedientea) aztertzen da Castellana de Ascensores enpresak sektoreko bi operadore handiren kontra aurkeztutako salaketa (Zardoya Otis eta GIESA Schindler), nahita egindako jarrera dagoelako, eta kontzienteki paraleloa, igogailuak fabrikatzen dituzten ia enpresa guztien aldetik. Jarrera hori, funtsean, litzateke iraupen luzeko kontratuak sinatzeko eskakizuna (bost eta hamar urte) instalatzen dituzten igogailuen mantentze- eta konpontze-lanetarako. Iraupen luzeko kontratu horiek aparatuen erabiltzaileak mantentze-enpre- kin harremanetan jartzen dituzte, eta, era horretan lotura duten merkatuen arteko irazgaitasuna sor- tzen da, beste enpresa batzuei igogailuen mantentze- eta konpontze-zerbitzuen merkatuan sartzea eragotzita.

⁴⁷ Kontzentrazio ekonomikorako C108/07 Orona/Ascensores Gasteiz espedientea.

⁴⁸ Dagoeneko aurretik adierazi denez, laganaren tamaina txikia kontuan hartuz gero ez du balio zientifi- korik.

6.1. koadroa						
Posizionamendua instalazioaren eta mantentze-lanen merkatuetan, lurralde historikoaren arabera						
	Araba Instalazioa	Araba Mantentzea	Bizkaia Instalazioa	Bizkaia Mantentzea	Gipuzkoa Instalazioa	Gipuzkoa Mantentzea
Orona	>20	[10-15]	[10-15]	[10-15]	>20	>20
Thyssen	[5-10]	[0-5]	[15-20]	[15-20]	[10-15]	[15-20]
Zardoya	[5-10]	[5-10]	[5-10]	>20	[5-10]	[10-15]
Eguren	[0-5]		[10-15]		[0-5]	
Omega	[10-15]	[5-10]	[5-10]	[0-5]	[0-5]	[0-5]
Schindler	[5-10]	[0-5]	[0-5]	[5-10]	[0-5]	[0-5]
Electra	[15-20]	>20				

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Industria, Merkataritza eta Turismo Saila. Bertan egindakoa.

«Lehen mailako merkatuan (instalazioa) kuota handiagoa izateak merkatu sekundarioan ere (mantentzea) kuota handiago izatea dakar» proposamena oro har bete egiten da.

Antzemandako integrazio progresibo horrek bi efektu mota sor ditzake:

1. alde bakarreko efektuak: nabarmen jaisten da mantentzaile independenteen eskaintza, eta, ondorioz, intramarkako lehia
2. koordinatuak: integrazio bertikalak koordinaziorako pizgarriak sortzea edo finkatzea sustatu ahal du.

Lehenengo alderdiari nagusitasun posizioak sortzearen eta horien balizko abusuaren ikuspuntutik heltzen zaio; bigarrena, berriz, paraleloak diren merkatua banatzeko helburuz kontzienteki jarraitzen diren praktiketatik ikusi behar da.

Ildo horretan lehiaren gaiaren inguruan araudi komunitarioa sortzeko asmoz egindako erreferentziak merkatuaren definizioari buruzko Komunikazioan Batzordeak honela dio⁴⁹,

«Hainbat eremutan lehenago aipatutako printzipioen aplikazioa tentuz egin behar da. Horrela gertatzen da merkatu nagusia eta merkatu sekundarioa aztertzen direnean, bereziki enpresek une jakin batean hartzen duten jarrera aztertu behar denean, Itunaren 86. artikularen arabera. Merkatuak definitzeko metodoa kasu horietan beti bera da, hau da, bezeroen erosteko erabakietan oinarrituta prezio erlatiboen bariazioen aurrean izandako erreakzioak ebaluatzen dira, baina, era berean, lotura duten merkatuetan indarrean dauden baldintzen ondorioz orde-

⁴⁹ 1997ko abenduaren 9ko 97/C 372/03. DOCE C 372 Komunikazioa. 56 atala.

kagarritasunaren alorrean sortzen diren mugak ere kontuan hartzen dira. Lehen mailako produktuarekiko bateragarritasuna garrantzitsua denean, bigarren mailako produktuen definizio mugatu batera irits daiteke, aldatzeko piezen merkatua, esate baterako. Bigarren mailako produktu bateragarriak erabiltzeko zailtasunekin batera, prezioak altuak izateak eta lehen mailako produktuen bizitza zikloa luzea izateak bigarren mailako produktuen prezio erlatiboen igoera errentagarria izatea eragin dezake. Bigarren mailako produktuen artean ordezkaterik baldin badago edo lehen mailako produktuen ezaugarriek ahalbidetzen baldin badute bigarren mailako produktuen prezio erlatiboen igoeraren aurrean kontsumitzailearen erantzuna azkarra eta zuzena izatea, merkatuaren definizioa bestelakoa izan daiteke».

Horrek bidea irekitzen dizkie aurrerago aztertuko dira bi oztopo motari: alde batetik mantentze- eta konpontze-sektorean teknologia motako oztopoak egon daitezke, igogailuen eta osagaien gero eta konplexutasun handiagoa dela eta; eta, beste alde batetik, mantentze-kontratuen iraupen luzea, kontsumitzailearen erreakzio azkarra eragozten duena.

6.2. Merkatuan sartzeko oztopoak

Merkatuan sartzeko oztopotzat hartzen da merkatu jakin batean operadore berriei sartzeko gogoia kentzen edo, zuzenean, sartzea eragozten dieten zailtasun eta koste guztiak⁵⁰.

Sartzeko oztopo horien artean honakoak ditugu⁵¹:

- legezkoak
- tekniko eta ekonomikoak
- dagoeneko merkatuan dauden enpresek duten posiziotik sortutakoak.

6.2.1. Legearen arlokoak

Igogailuen instalazioaren eta mantentze-lanaren ezaugarriek, jarduera tekniko eta espezializatua izanik, alor honetan araudi ugari izatea eragin dute, zerbitzu mota hau era egokian emateko eduki beharrekoa den gaitasun tekniko eta humanorik ez duten operadoreak merkatuan sartzeko ekiditeko helburuarekin, era horretan erabiltzaileari zerbitzuan nahitaezko segurtasuna eskaintzen zaiola bermatzeko. Horiek horrela, adierazi beharra dago

⁵⁰ Kontzentrazio ekonomikorako LDAren C89/05 Iguatorios Médicos espedientea.

⁵¹ Kontzentrazio horizontalen ebaluazioari buruzko Batzordeak xedatutako Jarraibideen 71. atalean ezarritako irizpideak, enpresen arteko kontzentrazioen kontrolari buruzko Kontseiluaren Araudiari jarraiki (2004/C 31/03). LDK, bere aldetik eta oro har, kontsideratzen du sartzeari jartzen zaizkion oztopoak bi motakoak izan daitezkeela: ekonomikoak eta legearen alorrekoak.

igogailuen konpontze- eta mantentze-lanen merkatuan sartzeko eskatzen diren baldintza administratiboak berez ez direla merkatuan sartzeko oztopo izaten.

Arau horiek ez dira funtsezkoak merkatu garrantzitsuetan lehiakideek eragin dezaketen presio lehiakorra zehazteko garaian; izan ere, kontsideratzen da arauak ezarri diren helburuetarako beharrezkoak, egokiak eta proportzionalak direla.

EAEko mantentze-jarduera erregulatzen duen araudiari dagokionez bi alderdi azpimarratu behar dira:

1. Euskal Autonomia Erkidegoak igogailuen enpresa mantentzaileei baimen administratiboa emateko sistema probintziala du, Igogailuen Araudian jasota dagoenaren arabera⁵². Sistema hori aldatu eta sistema autonomiko bakar batek ordezkari lezake⁵³, EAEko lurralde osorako balioduna izango litzatekeena.

Errealitateak erakusten du operadoreen artean lurralde lotura handia dagoela.

6.2. koadroa			
Mantentze-merkatuaren kuota			
	Enpresa liderra	Kuota	Kuota lehiakorra
Araba	Electra	%>20	% [10-15]
Bizkaia	Zardoya Otis	%>20	% [15-20]
Gipuzkoa	Orona	%>20	% [15-20]

Iturria: Eusko Jaurlaritzak. Industria, Merkataritza eta Turismo Saila. Bertan egindakoa.

Gaur egungo sistemaren alternatiba izan liteke baimen autonomiko bakar bat ematea lurralde historiko guztietarako. Hain zuzen ere, baimenak bateratzea neurri liberalizatzailea izan liteke merkatu geografikoaren banaketari aurrea hartzeko. Aukera hori, ordea, mesedegarria izango litzateke dagoeneko Araban zein Gipuzkoan eta Bizkaian presente dauden talde handientzat.

2. Kalifikazio indibidualerako txartelak egoteak sektorean sartzeko oztopoak murriztuko litzuzke, operadore txiki atomizatuak izatea ahalbidetzen baitu,

⁵² Azaroaren 8ko 2291/1985 Errege Dekretua, igogailuen instalazioa eta mantentze-lanen gaineko araudia onartzen duena.

⁵³ Baimenaren eskumena industria gaietan dagoen eskumen exekutiboaren diseinu administratiboaren funtsezko elementua da, eta, hori dela eta, askatasun handia izango luke. Balizko aldaketa horrekin ere ez litzateke eragotziko Estatuko legediak erdietsi nahi dituen helburuak eskuratzea.

eta ez bakarrik mantentze-zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresa talde handiak. Dena dela, profesional baimendunak enpresa baimendu batean aritu behar du lanean.

Egoera horrek aukera emango luke igogailuen konpontze- eta mantentze-lanen merkatuan operadore berriak sartzeko. Askotan operadore horiek sektore honetako enpresa handietan aritutako teknikariak edo langileak izango ziren, eta lortutako eskarmentuaz baliatuta, mantentze-lanen enpresa propioa sortzeko erabakia hartuko lukete. Normalean enpresa txikiak izango ziren, eta dituzten baliabide mugatuekin mantentze-zerbitzuak eskaintzen dituzte prezio lehiakorretan, era horretan merkatuaren eskaintza handituz.

Nolanahi ere, kontuan izan behar da sektorearen garapen teknologikoa, hurrengo atalean aztertuko dena, horrek atzera eginarazi ahal izango bazuen operadore berrien sarrera.

6.2.2. Tekniko eta ekonomikoak

Igogailuen instalazio eta mantentze-lanen merkatuan inbertsio bolumenak oso moderatuak direnez, ez dago publizitatearen alorreko gasturik, jabetza teknologia eta abar bezalako oztoporik. Baina, mantentze-lanaren jarduera burutzeko, Autonomiako legediak jarduera burutzen den lurraldean establezimendu bat edukitzera behartzen du.

Horretaz gain, jarduera burutzen den lurraldeko merkatuan sartzeko erabakia eta gerora baliabideak mantentzea justifikatzen duen produkzioko eskala eraginkorra izan behar dela kontuan hartu behar da. Sektoreko enpresek⁵⁴ adierazi dutenez kontratuen gutxieneko eskala 100 unitateetako da, baina kopuru horretatik beherako kopurua duten eta lanean ari diren enpresak ere badaude. Dena dela, gutxieneko eskala hori lortzeko zailtasunak bai dira mantentze-lanaren merkatuan sartzeko benetako oztopoa.

Baliteke integrazio bertikalaren gorakada progresiboak, edo, beste era batean esateko, instalatzaileek mantentze-lanaren segmentuan *uraz beheiti* eran duten presentziak erabiltzailearengana iristeko erraztasun handiagoa dagoela adieraztea. Izan ere, *mantentze-kontratua lortzeak neurri handi batean zerikusi handia du igogailuen salmenta eta instalazioarekin. Behin lehenengo kontratua lortuta, igogailuaren mantentze-lana lehiakideengandik «salbu»⁵⁵ dago, nolabait esateko, ohikoa izaten baita kontratuetan iraupen luzeko akordioak sinatzea, eta behin kontratuaren indarraldia bukatzen denean aldaketa gutxi ematen dira hornitzaileetan.*

⁵⁴ Kontzentrazio ekonomikorako C108/07 Orona/Ascensores Gasteiz espedientea.

⁵⁵ Aztertutako dinamika lehiakorrari buruz gogorarazi behar da, bereziki, eskaeraren malgutasuna eskainitako prezioaren aurrean. Horrek zaila egiten du merkatuan sartzeko politika agresiboak adoptatzea, aldagai honen lehiakortasunean oinarrituak, eta helburua dutenak lehiakideen bezero zerrendetatik kontratuak bereganatzea.

Integrazio bertikalari teknologiaren alorreko oztopoak gaineratu behar zaizkio, aparatuak gero eta konplexuagoak direlako eta beren mekanismo eragileak gero eta informatizatuago egoten direlako⁵⁶.

Horiek horrela, nahiz eta instalazioan operadore berriak sartzeko oztopo formalik ez izan, gero eta eskakizun teknologiko eta lehiakor handiagoak daude, neurri handi batean segurtasun baldintzekin lotutakoak. Horrek guztiak enpresa handien protagonismoa sustatzen du, horiek kosteak, erronkak eta eskakizun konpetitiboak bere gain hartzeko gauza izaten baitira. Eskakizun horiek, hain zuzen ere, sartzeko oztopo izaten dira teknika, antolaketa eta kualifikazioaren alorretan nahitaezkoa irizten den gaitasunik ez duten operadoreentzat.

Mantentze-lanari dagokionez, jarduera hori ez da salmentaren merkatutik eratorritako segmentua soilik; izan ere, hasiera batean eta zenbait zehaztapen eginda, enpresa mantentzaileak edozein fabrikatzailek egindako igogailuetan mantentze- eta konpontze-lanak egiteko beharrezkoak diren inputetarako sarbidea dute (piezak, ezaguera teknikoak), enpresak saldutakoak izan ala ez. Badira mantentzailea aldatzea zaila egiten duten hainbat faktore:

- Teknologiaren alorrean osagai elektronikoak sartzearen ondorioz sortutako oztopoa gero eta handiagoa da. Osagai horiek, osagai mekanikoak ez bezala, opakoak dira operadoreen artean, eta beste operadore baten tresnak hartzeko gogoia kentzen dute, baldin eta ez badira operazioa erakargarria egiten duten «*mantentze-kontratu pakete garrantzitsuak*» izaten. Hori, ez aipatzeagatik behar dituzten erreminta bereziak eta komertziala ez den aztertzeko tresneria.
- Horretaz gain, edozein gorabehera gertatuz gero, jatorrizko instalatzaileek igogailua instalatu zuten baldintza beretan aldatzeko piezarik ez duten operadoreen erantzuteko denborak (jasotako informazioen arabera erabakiak hartzeko garaian kontuan hartzen den parametro nagusienetako bat) eskaintzen den zerbitzuaren kaltetan joka dezake.
- Gertakari horien eskaeraren pertzepzioa; izan ere, subjektiboki seguruago sentitzen da mantentze-lana igogailuaren instalatzaileak burutzen baldin badu⁵⁷.

⁵⁶ Hala eta guztiz ere, LBNk 2007ko abenduaren 4an emandako ebazpenak (kontzentrazio ekonomikorako C 108/07 ORONA / ASCENSORES GASTEIZ espedientea), honela dio:

«*Hasiera batean mantentze-zerbitzua edozein operadorek eskain dezake, igogailuaren fabrikatzailea eta instalatzailea edozein direla ere; izan ere, eskatzen diren ezagutza teknikoak nahikoa homogeneoak eta baliodunak dira fabrikatzaile guztien igogailuak konpontzeko. Hala eta guztiz ere, harreman estua dago merkatu honen artean eta igogailuen salmentaren eta instalazioaren merkatuen artean, eta hori kontuan hartu beharrekoa da.*»

⁵⁷ 2007ko abenduaren 4an LBNk emandako ebazpena (Kontzentrazio ekonomikorako C 108/07 ORONA / ASCENSORES GASTEIZ espedientea): *Lehenengo eta behin, eskaerak emandako zerbitzuan desberdintasunak sumatzen ditu, instalatzailearen zerbitzu tekniko ofizialak eskaintzen duen markak segurtasuna*

6.2.3. Merkatuan dagoeneko posizio finkoa lortu duten enpresen ondorioz sortutakoak

Zenbaitetan, sektore jakin batean sartzea zaila izan daiteke era eraginkorragoan lehian aritzeko behar diren eskarmentua eta izena ez daudelako operadore berrien eskura.

Merkatuan dagoeneko finkatuta dauden enpresen posizio konpetitiboaren garrantziari buruzko balorazioa egin ahal izateko, Europako Batzordearen ustez hainbat faktore aztertu behar dira, hala nola kontsumitzaileek marka zehatz bati dioten fideltasuna, hornitzaileen eta bezeroen arteko harremanak, sustapen eta publizitate kanpainen garrantzia, eta izen onarekin zerikusia duten beste abantaila batzuk. Horretaz gain, merkatuan sartzeko oztopoak planteatu daitezke dagoeneko merkatuan dauden enpresak bezeroa kopuru handia bereganatzeko prozesu batean sartuta daudelako, edo, bestela, bezeroek hornitzaile berri batekin hasteko ordaindu beharko lituzketen kosteek ez sartzera motibatuko balute⁵⁸.

Mantentze-lana kontratatzearen erabakia inposatutako betebeharrak da etxek jabeen elkarrekin bertaratzen den erabiltzaile atomizatu batentzat. Jabeek zerbitzuaren kalitateari ematen diote lehentasuna (gorabeherarik ez izatea) prezioaren gainetik, eta informazio garden eta homogeneorik ez dute izaten gainera prezioari buruz. Hori horrela, mantentze-lana ez da oso malgua izaten prezioarekiko: behin kontratua sinatzeko erabakia hartu denean, kuotaren aldaketak onartu egiten dira, neurri baten barruan baldin badaude, eta erabiltzaileen iraupena luzea izaten da.

Erabiltzaileek mantentzailearekiko duten *fideltasunak* eragin du operadore berri bat merkatuan sartzeko enpresa mantentzaileak erostearen bidez egitea, eta, ondorioz, enpresa horren bezero zerrenda erostearen bidez, bezeroak bereganatzeko politika agresiboetara jo gabe. Bestalde, egia da 1997-2007 urte bitarteko hamarkadan izandako boomak enpresen ahaleginak etxebizitza berriak bereganatzera bideratu dituela, eta sustatzaileari igogailuak saltzera, gerora, etxek jabeen elkarrekin subrogatuko duen mantentze-lanarekin jarraitzeko.

Indarrean dauden kontratuen mekanismoek inplikatzeko dute zerbitzuaren elementuak eta prezioa negoziatzeko balizko momentuak oso murrizak izatea, eta, prezioa eta zerbitzua hobetzeko eskaintza baten aurrean operadorea aldatzea eragozten dute, kontratuen iraupen epeak eta kontratua amaitu baino lehen deuseztatuz gero zigor klausulak ordaindu behar izaten direla kontuan hartu behar baita.

bermatzen diola pertzibitzen duelako, eta langileek instalatzen dituzten igogailuen gaineko prestakuntza espezifiko hartzen dutelako, mantentzaile batzuen eta besteen jarreraren artean egon litekeen desberdintasun objektiboa alde batera utzita.

⁵⁸ Kontzentrazio horizontalen ebaluazioari buruzko Batzordeak emandako jarraibideak. 71. atala.

6.2.3.1. *Mantentze-kontratuen iraupena*

Lehiaren defentsaren ikuspegitik, konpontze- eta mantentze-lanetarako iraupen luzeko kontratuak (10 urte artekoak) eskaintza aldatzeko murrizketa handia izan daitezke, eta, zenbait kasutan, abusuzkoak ere bai.

Izan ere, Asturiasko Auzitegi Probintzialak, 1998ko uztailaren 28an emandako epaian, ebatzi zuen kontratuaren iraupena hamar urtekoa zela zioen klausula gehiegizkoa zela, eta, ondorioz, nulua, Kontsumitzailearen Defentsarako Lege Orokorren arabera. Epaiaren arabera, epe hori pribilegioa da enpresarentzat, bezeroei kaltea sortzen die eta lehia librea eragozten du.

Horrezaz gain, Auzitegiaren ustez zentzugabea da enpresak bere bezeroei kontratuetan hamar urteko epeak ezartzea, Igogailuen Araudiaren arabera enpresa horiek urtebeteko epera mugatzen den baimen administratiboa besterik ez baitute (urtebeteko epeetan luza daitekeena).

Horri dagokionez, aztertu egin beharko litzateke ba ote dagoen beharrezko harremanik enpresa mantentzaile gisa lortzen diren baimenen iraupenaren eta partikularrekin sinatutako kontratuen artean. Beste era batean adierazteko, ea merkatuan jarduteko urtebeterako baimena baino ez duen mantentze-enpresa batek partikularrekin 5 urterako mantentze-kontratuak sinatu ahal dituen. Lehiaren Defentsarako Zerbitzuak⁵⁹ zenak honelako iritzia zuen: «*mantentze-kontratuaren iraupenak ez du zertan zerikusirik izan igogailuen enpresen erregistroan inskribatu beharreko urteroko berritzearekin*».

Beste alde batetik, egindako landa lanaren ondorioz honelako emaitza lortu da: mantentze-kontratuen %64k (14 kontratuetatik 9) urtebetetik gorako iraupena du (horien artean, 5 kontratu hiru urterako dira eta 4 bost urterako).

Arautzeko ikuspuntutik, aztertzea litzateke arau bidez mantentze-kontratu guztietarako urtebeteko gehienezko iraupen uniforme ezartzea.

6.2.3.2. *Zigor klausulak aplikatzea kontratua alde aurretik deuseztatuz gero*

Gehiegizko iraupenaz gain, aztertu diren ia mantentze-kontratu guztiek zigor klausulak dituzte kontratua alde aurretik etenez gero, zerbitzuaren %50 eta %100 bitarteko kopurukoak. Enpresek klausula horiek justifikatzeko argudio

⁵⁹ 1992ko azaroaren 5ean LDAk emandako ebazpenak (316/92 espedientea) aztertzen du Castellana de Ascensores enpresak sektoreko bi operadore handiren kontra aurkeztutako salaketa (Zardoya Otis eta GIESA Schindler), nahita egindako jarrera dagoelako, eta kontzienteki paraleloa, igogailuak fabrikatzen dituzten ia enpresa guztien aldetik. Jarrera hori, funtsean, litzateke iraupen luzeko kontratuak sinatzeko eskakizuna (bost eta hamar urte) instalatzen dituzten igogailuen mantentze- eta konpontze-lanetarako. Iraupen luzeko kontratu horiek aparatuen erabiltzaileak mantentze-enpresekin harremanetan jartzen dituzte, eta, era horretan lotura duten merkatuen arteko irazgaiatasuna sortzen da, beste enpresa batzuei igogailuen mantentze- eta konpontze-zerbitzuen merkatuan sartzearagotzita.

gisa kontratuak bete ahal izateko egindako inbertsio eta pertsona gastuak erabiltzen dituzte.

Negoiazioa posible den momentu guztietan, kontratuaren amaieran izan ezik, aldaketa kostuak daude bezeroarentzat, eta amaieran ere, berritze automatikoaren mekanismoengatik eta mantentzailearekiko edo instalatzailearekin konfiantza maila dela eta, eta abar, kontratu gehienak prezioa era egokian negoziatu gabe berritzen dira.

Gehiegizko iraupena, alde bakar batek kontratua bertan behera uzteagatik jartzen den zigor klausularekin batera, lehia librearen kontrako elementutzat har litezke.

6.3. Beste alderdi batzuk

Sektorearen ezaugarrietan funtsezko beste elementu bat dago, prezioen formazioa alegia.

Prezioen heterogeneotasuna dela eta⁶⁰, instalazioa egiteagatik eta mantentze-kontratuagatik denbora unitate bakoitzeko batez besteko prezioen inguruan eskura dugun informazioa, egoera horien artean berezitasunik egin gabe, ez dago batere argi, eta ez dakigu azkenaldi honetan zein izan den prezioen jarrera.

Instalazioari dagokionez, bulegoetako eraikin handiek eta eraikin publikoek lizitazioak egin ditzakete instalazioa preziorik onenean, eta irizpide objektiboari jarraiki (administrazio publikoen kasuan kontratu administratiboen gaia arautzen duen legediari lotuak), bezeroaren arabera handia izan daitekeen unitate kopuru bat adjudikatzeko.

Mantentze-lanari dagokionez, berriz, dira sektore honetan informazioaren arloan dagoen asimetria gutxiagotzera bideratutako jarduerak kontenplatu behar. Erregaien txikizkako banaketaren kasuan egin den bezalaxe, neurri bat izan liteke mantentze-enpresei betebeharra ezartzea eskaintzen dituzten pre-

⁶⁰ 2007ko abenduaren 4ko LBNren txostena (Kontzentrazio ekonomikorako espedientea, ORONA / ASCENSORES GASTEIZ):

«Igogailuen salmenta eta instalazioaren merkatuan, prezioaren aldagaia honakoan arabera jartzen da: tresnaren espezifikotasunak, kokatuko den lekua ezaugarriak edo bezeroaren preferentziak. Hori dela eta, instalatzaileek merkaturatutako igogailu ereduaren arabera oinarritzko prezioak biltzen dituzten katalogoak dituzten arren, ez dago homogeneotasunik saltzaileen eta bezeroen artean adostutako prezioen artean, ezta igogailu modelo berarentzat ere.

....

Mantentze-merkatuari dagokionez, prezioak desberdinak dira bai igogailuaren ezaugarriengatik (modelo, tamaina, antzinatea) bai errazoi exogenoengatik (igogailua zein finkatzen dagoen kokatua, finkak etxebizitzetarako erabilera duen ala ez, igogailua zenbat erabiltzen den). Arrazoi horien artean, kontratuaren estaldura mota azpimarratu behar da. Oinarritzko estaldura mota tipologia batetik abiatuta (oinarrizko kontratua eta arrisku gutzietarako kontratua), kontratuak pertsonalizatu ahal dira, notifikatzailearekin ados jarria.

zioak web orri batean argitaratzeko, zerbitzu guztien prezioak eta prezioaren eta kalitatearen artean harremana alderatzea ahalbidetzeko. Kasu horretan, «*regulation through information*» izeneko sistema erabiltzen da, edo, gauza bera dena, prezioen gardentasuna eta publizitatea sartuta lehia sortzen da. Mekanismo hori industria-ikuskatze kasu askotan erabiltzen da baimena emateko prozeduran bertan, enpresa mantentzaileak eskaintzen dituen zerbitzuen prezioen zerrenda aurkeztu behar baitu.

ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

7. ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

7.1. Kontsiderazio orokorrak

- Tradizioz, lehiaren arloko agintariek lehiaren inguruan egin duten analisiak hiru merkatu nagusi bereizten ditu (produktuak zein geografikoak).
 - Fabrikazioa: igogailuen fabrikazioa Estatu zein Europa mailan diharduten enpresek burutzen dute.
 - Instalazioa: igogailuen salmenta eta instalazioa; Estatu mailakoa.
 - Mantentze-lana: Tresna hauen mantentze- eta konpontze-lana probintzia mailan burutzen da, agerian baitago arazoan aurrean erantzun azkarra eman behar dela.
- Europako Parlamentuaren 95/16/CE Zuzentarauak eta igogailuen Kontseiluak sektore honetan legedian egindako berrikusketak (Espainiako Zuzenbidean abuztuaren 1eko 1314/1997 Errege Dekretu bidez aplikatua) hiru merkatuak bi merkatutara mugatzen ditu: alde batetik igogailuen fabrikazioa, instalazioa eta salmenta, eta, beste aldetik, konpontze- eta mantentze-merkatua. Banaketa analitikoa mantentzen da lehiaren defentsa mantentzeko helburuarekin.
- Sektore honetako araudiak ezartzen du igogailuen erregistroa egiteko eta horiek funtzionamenduan jartzeko beharrezkoa dela mantentze-kontratua sinatu dela egiaztatzea. Hori horrela, igogailuek kontrol mota bikoitza gainditu behar dute: alde batetik aldi behin egiten den mantentze-lan pribatua, eta, bestetik, Kotrolerako Baimendutako Erakundeek (KBE) burutzen duten ikuskatze publikoa.
- Azterketan elaboratutako datu ekonomikoek, ordea, merkatuko eragileen «*business mix*» konplexuago bat erakusten dute: instalazioak EAEn jarduerak mugitzen duen diru kopuruaren %30 inguru biltzen duen bitartean, estimatzen da mantentze-lanak %70 gutxi gorabehera biltzen duela; azken merkatua, beraz, kuantitatiboki interesgarriena da. Ia enpresa fabrikatzaile guztiak analisiaren helburu diren bi merkatuetan edo azpisektoreetan presente daude.
- Instalazioa «*fluxu*» merkatua da, higiezinaren dinamikari lepora dakiokkeen ezegonkortasun handia du; bigarrena, berriz, «*stock*» merkatua da, egonkorra eta metagarria.

- Hori dela eta, nahiz eta ezaugarri desberdinak izan ez dira (ez ekonomiko-ki ezta araudiaren aldetik ere) bi merkatu erabat autonomo, lotura handiak dituzten eta mendekotasuna duten merkatuak baizik (bigarrenak lehenengoarekiko). Merkatu nagusia (instalazioa) eta merkatu sekundarioa (mantentzea) bereizi behar dira.
- Arrazoi hori dela medio, lurralde dimentsioari dagokionez, nahiz eta foku geografiko desberdinak izan (lehenengoak Estatu eta bigarrenak probintzia), praktikan merkatu bateko zein besteko firmek gero eta identitate maila handiagoa aurkezten dute. Produktu merkatuan ere elkarreagina suma daiteke, igogailuak konpontzea eta mantentzea baldintza dezaketenez oztopo teknologikoen ondorioz.
- Joera horien atzean dauden faktoreak ugariak dira, bai interes ekonomikoak (mantentze-merkatuaren bolumena erakargarriagoa eta egonkorragoa da) bai teknologia eta lehiakortasun alorretako eskakizunak (eskakizun batzuk indartsuenen/handien eskura baino ez daude), bai izaera operatiboa dutenak (instalatzaileak, beste batzuen aurrean, aukera handiagoak ditu mantentze-lana bereganatzeko)...; faktore horiek guztiek eragiten dute bi merkatuen integrazio bertikalaren dinamika progresiboa izatea eta mantentze-merkatuan ematen den lehiaren intentsitatea jaitea.
- Antzemandako integrazio bertikal progresibo horrek bi motako efektuak sortzea eragin dezake: a) alde bakarreko efektuak: nabarmen jaisten da mantentzaile independenteen eskaintza, eta, ondorioz, intramarkako lehia; b) koordinatuak: integrazio bertikalak koordinaziorako pizgarriak (merkatua banatzea) sortzea edo finkatzea sustatu ahal du. Lehenengo alderdiari nagusitasun posizioak sortzearen eta horien balizko abusuaren ikuspuntutik heltzen zaio; bigarrena, berriz, paraleloak diren merkatuak kontzienteki banatzeko helburuz jarraitzen diren praktiketatik ikusi behar da.

7.2. Instalazioa

- Kasu gehienetan informazio ona eta negoziatzeko ahalmena duen bezero profil batekin lotua (higiezinen arlokoa), merkatuak dinamismo nabarmena eta prezioetan agresibitate handi xamarra erakusten du. Lotura duten bi merkatu bezala hartzeak ere estrategia lehiakorra definitzea ahalbidetzen du, instalazioak mantentze-sektorerako «*sarbideta*» izanik.
- Merkatuaren zatirik garrantzitsuen izaera multinazionala duten enpresa talde txiki baten inguruan banatzen da, eta, neurri txikiago batean, tokiko enpresen antzeko kopuru batek erdi mailako kontzentrazioa dute.
- Operadore berriak sartzeko oztopo formalik ez dagoen arren, neurri handi batean Europako eremu erregulatzaitetik datozen segurtasun baldintzen

ondorioz teknologia eta lehiakortasun alorretan gero eta eskakizun handiagoak sortzen ari direnez, enpresa handien protagonismo progresiboa sustatzen ari da, horiek kosteak, erronkak eta eskakizun konpetitiboak bere gain hartzeko gauza izaten baitira. Eskakizun horiek, hain zuzen ere, sartzeko oztopo izaten dira teknika, antolaketa eta kualifikazioaren alorretan nahitaezkoa irizten den gaitasunik ez duten operadoreentzat.

- Lurraldeka, merkatuaren protagonista diren enpresa multinazional handiak hiru lurralde historikoetan agertzen dira, protagonismo maila desberdinarekin bada ere; toki mailako enpresek, berriz, nolabaiteko lurralde partikularitate maila mantentzen dute, hori gero eta zailagoa bada ere. Lurralde historiko bakoitzak bere lurralderako baino ez du ematen baimen administratiboa, ez EAE osorako, eta, baliteke horrek fenomeno hori areagotzea.
- Kasu bat kenduta gainerako kasu guztietan izandako kontzentrazio operazioek izaera bertikala dute (instalatzaile batek mantentzaile bat erosten du).

7.3. Mantentzea

- Etxejabeen elkarte motako bezeroari lotua dago, oso atomizaturia eta ez oso garrantzitsua da. Merkatu hau oso egonkorra da, operadoreen merkataritza jarduera ez da oso dinamikoa, eta horien arteko lehiak ere intentsitate baxua du.
- Hori horrela da, neurri handi batean merkatu honek instalazioaren merkatuarekiko mendekotasun handia duelako, edo bertan oso integratua dagoelako.
- Igogailua abian jartzeko mantentze-kontratua sinatzea derrigorrezkoa dela eta, instalatzaileak baldintza ezin hobeak ditu mantentze-kontratuari heltzeko; egiaztatu da merkatu honetan sartzeko era nagusia dela instalazioa egiten duen konpainiarekin (instalazioa egiten duen aldi berean) mantentze-kontratua sinatzea.
- Hain zuzen ere, aztertutako kontratuetan egiazta daiteke %70ko gorago-ko fidelizazio edo errepikapen adierazle bat dagoela (mantentze-lana instalazioa egin duen taldeko enpresa batek egiten du). Horrek dakar igogailuen salmentaren eta mantentze-kontratuen arteko harremana oso altua izatea.
- Egoera hori finkatzen duten hainbat faktorek etxejabeen elkarteei mantentzailea aldatzea eragozten diete:
 - Teknologiaren alorrean osagai elektronikoak sartzearen ondorioz sortutako oztopoa gero eta handiagoa da. Osagai horiek, osagai mekanikoak

- ez bezala, opakoak dira operadoreen artean, eta beste operadore baten tresnak hartzeko gogoia kentzen dute, baldin eta ez badira operazioa erakargarria egiten duten mantentze-kontratu pakete garrantzitsuak izaten.
- Gertakari horien eskaeraren pertzepzioa; izan ere, subjektiboki seguruago sentitzen da mantentze-lana igogailuaren instalatzaileak burutzen baldin badu.
 - Etxejabeen elkarte bezalako bezeroaren ezaugarriak. Izan ere, segurtasunaren alorreko erantzukizunek presionatu egiten dute bezero mota hau, eta askotan eraikina kudeatzeko erreferente egonkor eta profesionalizaturik izaten ez denez, ez da prezioari buruzko gorabeherarik izaten.
 - Kontratuen ezaugarriak: iraupen luzeak, kontratua indarrean dagoen bitartean mantentzailea aldatzeagatik ordaindu beharreko zigorrek eta kontratuak automatikoki berritzeko mekanismoek ez dute errazten operadorea aldatzea.
 - Informazio konparagarririk ez dago; eta egoera hori larriagoa da instalazio bakoitzaren ezaugarri bereziengatik (eraikina eta igogailua).
- Beraz, kontuan izan behar da instalazioa mantentze-laneko kontratua lortzeko bide naturala dela, gorago aipatutako arrazoiak direla eta mantentze-operadorea aldatzeko dinamika mugatua dagoela eta azken urteetan oso fabrikazio-instalazio erritmo dinamikoa eman dela, eraikinak eraikitzearen «boom»arekin zerikusi zuzena duena, eta horrek neurri handi batean enpresa ahalegina polarizatu egin duela. Horiek guztiak horrela izanik instalazioa burutzen duten operadoreek ez dute ahalegin berezirik egin lehiakideen mantentze-kontratuak banan bana eskuratzeko lehian, eta, aitzitik, haien estrategia bideratu dute dagoeneko bezero zerrendak dituzten tokiko enpresak erostera, horretarako hainbat formula erabilia.
 - 2007an merkatuaren egiturak kontzentrazio handia zuen Araban eta Gipuzkoan, eta zertxobait txikiagoa Bizkaian. Hori horrela da operadore txikiak desagertzeko prozesu azkar bat eman delako, hainbat formula erabilia operadore multinazional handiek erosi eta bereganatu egiten dituztelako (erosketak, aliantzak, kontratu paketeen erosketak...). Dinamika horren erakusgarri da Bizkaian 2006. eta 2007. artean operadore galera handia eman zela, %46 ingurukoa.
 - Praktikan prozesu horien emaitza da gaur egun funtsean mantentze-lanaren operadoreak eta instalatzaileak berak direla; baina, ibilbide historikoa-ekin eta lurralde bakoitzean merkatua sortzearekin zerikusia duten lurralde protagonismo profil desberdinak dituzte.
 - Europako Batzordeak aukera izan du merkatu nagusiaren eta merkatu sekundarioaren integrazio bertikal eta mendekotasun mailaren gaiari hel-

tzeko, lehiaren gaiaren inguruan araudi komunitarioa sortzeko asmoz egindako erreferentziazko merkatuaren definizioari buruzko Komunikazioan (1997ko abenduaren 9ko 97/C 372/03. DOCE C 372 Komunikazioa). Agiri horren arabera, integrazioa ez da kezkarria baldin eta ez bada merkatua *uraz beheiti* monopolizatzen. Patologia hori ekiditeko beharrezkoa da kontsumitzaileak bigarren mailako produktuen ordezkatzeko esanguratsua izatea edo produktuen ezaugarriek kontsumitzailearen erantzuna azkar eta zuzena ahalbidetzea, bigarren mailako produktuen prezioen igotzerak izanez gero.

- Teknologia, lehiakortasun eta administrazioaren alorretan dauden eskakizunek baino gehiago (hiru lurralde historikoetako lurralde erregistroak eta horretarako bete beharreko baldintzak), lurralde bakoitzaren mantentze-merkatuan sartzeko benetako oztopoak ondorengoek baldintzatzen dituzte:
 - Instalazioa eta mantentzea elementu estrategiko gisa integratzea. Integrazioa organikoa izan daiteke (enpresa bera) edo beste hainbat formula erabilita egin daiteke, aliantza, lankidetzak eta abar, esate baterako.
 - Gutxieneko kontratu paketeak edukitzeko beharra⁶¹, lurralde historikoan edo lurraldearen eremu batean jarduera mantentzailea burutzea bideragarria izan dadin.
 - Gaur egun dauden kontratu motek (igogailuak merkatuko unitate independenteak direnez) lehia izateko pizgarriak ezabatzen dituzte.
- Kontratuen iraupen epe luzeak eta kontratua eteteagatik aplikatzen diren zigor klausulak oso hedatuta daude operadoreen artean, eta hori, bere horretan, lehiaren intentsitate txikia bermatzen duen mekanismo bat da. Horrez gain, kontsumitzailearen erreakzio azkar eta zuzena eragozten dute.

7.4. Proposamenak

- Lehiaren agintariek, tradizioz, kontzentrazioa aztertzerakoan bi merkatu nagusi horien banaketaren eta isolamenduaren ikuspegia erabili izan dute, hau da, instalazioaren eta mantentze-lanen merkatuak. Azterketa honetan emandako datuek tesi hori berraztertzea ekarri dute, eta ikuspegi berri bati egin zaio lekua: merkatu nagusiaren eta merkatu sekundarioaren elkarren mendekotasuna dago, negozio bolumeneko oztopo ekonomikoak daude, eta operazioen efektu koordinatuak ematen dira. Konklusio horixe bera lortu zuen LBNk 2007ko abenduaren 4an aurkeztu zuen kontzentrazio ekonomikorako C 108/07 espedientean.

⁶¹ Lehiaren Batzorde Nazionalaren analisien arabera, 100 inguru izan daitezke.

- Elementu horiek eskatzen dute operadoreen jarrerak zaintzea eta kontzentrazioko adierazleen bilakaera diakronikoari erreparatzea.
- Lehiari dagokionez, jarduteko eremu desberdinak daude, hain zuzen ere lau lan jarduteko ildotara bideratzen dutenak: lanerako kontratuak, mantentze-bezeroak kontratua aukeratzeko gaitasuna, baimen administratiboak eta teknologiaren alorreko oztopoei aurrea hartzea.
 - Mantentze-kontratuak. Lehia indartzeko aukera izateko, honakoa egin beharko litzateke:
 - Kontratuaren iraupena nabarmen murriztea, eta, hala dagokionean, iraupen hori mantentzaileak jarduteko duen baimen administratiboarekin koherentea egitea.
 - Kontratu eredu baten bitartez mota honetako aparatuetarako eskaini beharreko prestazio guztiak bateratzea, antzeko prestazioak alderatzeko aukerarik ematen ez duen heterogeneotasuna murriztuta.
 - Esan gabe edo automatikoki kontratua luzatzeko klausulak ezabatzea.
 - Era berean, bi alderdi horiek murriztu egingo lukete balio epea bukatu aurretik kontratua deuseztatzeagatik ordaindu beharreko zigorren eragina.
 - Mantentze-lanaren bezeroak aukeratzeko duen gaitasuna indartzea. Bi lan ildo nagusi azter daitezke:
 - Informazioaren asimetria orekatzea: etxejabeen elkarteei kontratuen baldintza eta ezaugarriei buruzko informazio mekanismo batzuk ematea (prezioak, iraupenak, zigorrak...), aukeratzeko gaitasuna sustatzeko eta zerbitzuaren horniketan aldatzeko alternatibak eskaintzeko. Lan ildo hau, erregaien sektorerako ezarritako lan ildoarekin batera (informaziorako web orria), EAEko agintari administratiboek eskura duten informazioaren bidez edo Finken Administrazioaren Elkargoen lanaren bidez gara liteke.
 - Elkartzeko pizgarria, mantentze-kontratuen paketeen eskaeratik hasita kudeaketa/negoiazio kolektiboa egiteko. Formula hori erakargarriagoa izango litzateke bezeroarentzat mantentzailearen aurrean.
- Baimenak.

Aipatu beharra dago alor honetan tentuz lan egin behar dela, eta hausnarketa sakona egin; izan ere, ez baimenen aplikagarritasuna ez espero litezkeen eraginak ez daude agerian, eta analisi espezifikoak egin beharko litzateke.

- Mantentzailearen baimenen lurralde izaera berrikustea. Baloratu egin beharko litzateke hiru lurraldeetan jarduera profesionala burutzea ahalbidetuko lukeen baimen bakar bat ezartzea, kasu horretan baldintzak, eskakizunak eta zerbitzurako bermeak doituta. Nolanahi ere, horrelako baimen bat emateko erabakia hartu aurretik hausnarketa sakona eta analisi espezifikoa egin beharko lirateke.
 - Igogailua abian jartzeko garaian mantentze-kontratua sinatzea ez izatea baldintza bakarra, baizik eta kontratua bi eskaintzaren artean aukeratu ahal izatea.
 - Araudi bidez ezartzea baimen prozesuaren barruan agintariei zerbitzuaren prezioaren berri eman behar izatea.
 - Enpresen barruan bi azpisektoreen egituraren diru banaketa egitea, errenta gurutzatuen transferentzia ekiditeko.
- Oztopo teknologikoak

Igogailuetan osagai elektronikoak sartzearekin batera sortu diren oztopo teknologikoak mantentzaile independenteak sektorean sartzeko oztopo berri bat izan daitezke. Aurreikus daitekeenez zaila izango da, baina aztertzea izan liteke araudi bidez fabrikatzaileak «iturri kodeak» edo izaera teknologikoko informazio edo erreminta espezifikoko mantentzaileen eskura jartzera derrigortzea, markatik independenteak diren hirugarrenen jarduera ahalbidetzeko.

BIBLIOGRAFIA AIPAGARRIA

8. BIBLIOGRAFIA AIPAGARRIA

- ARANA GARCÍA, E. «Naturaleza Jurídica de la actividad de Inspección Técnica de Vehículos», *Revista Vasca de Administración Pública*, n. 54, 1999.
- ARRANZ GARCÍA, L. «La seguridad industrial», *Economía Industrial* vol. 207, 1981,
- BERMEJO VERA, J. «La Administración Inspector», *Revista de Administración Pública*, n° 147, 1998
- «Privatización y el nuevo ejercicio de función pública por particulares», *Revista Aragonesa de Administración Pública*, n° 20, 2002.
- BETANCOR RODRÍGUEZ, A. «Sobre la liberalización de la ordenación de la calidad industrial, la sustitución de la homologación y discrecionalidad administrativas por la homologación y discrecionalidad privadas y el desconocimiento por el TDC de principios básicos del derecho administrativo sancionador», *Anuario de la Competencia*, 1996. Madrid, 1998.
- CANALS AMETLLER, D. «El ejercicio por particulares de funciones de autoridad. Control, inspección y certificación», Comares, Granada, 2003.
- CARRILLO DONAIRE, J.A. «El derecho de la seguridad y de la calidad industrial», Marcial Pons, Madrid, 2000.
- FERNÁNDEZ FARRERES, G. «La infraestructura organizativa para la calidad y la seguridad industrial y el fenómeno del ejercicio por particulares de funciones públicas de inspección y control», *Revista Aragonesa de Administración Pública* n. 13 1998.
- FERNÁNDEZ RAMOS, S. «La actividad administrativa de inspección. El régimen jurídico general de la función inspectora», Comares. Granada 2002.
- GONZÁLEZ-VARAS IBÁÑEZ, S. «La responsabilidad administrativa en casos de «colaboración de los particulares en el ejercicio de funciones administrativas», *Revista Española de Derecho Administrativo* n° 123, 2004.
- NEVADO-BATALLA MORENO, P.T. «La intervención administrativa en la industria: seguridad y control», Comares, Granada, 2000.
- OCHARÁN DE LA CÁMARA, E. «Las entidades colaboradoras de la Administración en la CEE», *Economía Industrial*, vol. 207 n° 3, 1981.
- OJEDA MARÍN, A. «Entidades privadas colaboradoras de la Administración en el ámbito técnico», *Homenaje a José Antonio García-Trevijano Fos*. Colegio Universitario de Estudios Financieros-Instituto de Estudios de la Administración Local. Madrid, 1982.

- PADRÓS REIG, C. «Administración nuclear: los límites de la ciencia y la gestión del riesgo», Ponencia presentada en las *Primeras Jornadas sobre Burocracia y Organización Administrativa*. Barcelona, 1997. Inédito.
- «Posición de dominio y precios discriminatorios en materia de inspección y control técnico de industrias», *Anuario de la Competencia 1997*. Madrid, 1998.
- «Actividad administrativa y entidades colaboradoras», Tecnos, Madrid 2001.
- «Las entidades ambientales colaboradoras en la legislación catalana», *Gestión Ambiental* n° 24, 2000.
- «La competència autonòmica executiva sobre el règim administratiu de les activitats d'inspecció tècnica», *El Clip*. Institut d'Estudis Autònoms. Generalitat de Catalunya, 2007.
- PADRÓS REIG, C. y CASADO CASADO, L. «Las entidades colaboradoras de la Administración hidráulica», *Revista de Derecho de las Telecomunicaciones e Infraestructuras en Red*. n° 28, 2007.
- PERRY, M. «Vertical Integration: determinants and effects», SCHAMALENSEE, R. and WILLIG, R. (eds), *Handbook of Industrial Organization*, 1989.
- RIVERO ORTEGA, R. «El estado vigilante. Consideraciones jurídicas sobre la función inspectora de la Administración», Tecnos, Madrid, 2000.
- RODRÍGUEZ-CAMPOS GONZÁLEZ, S. «Calidad industrial e intervención administrativa», Ed. Atelier, Barcelona 2002.
- RODRÍGUEZ-GONZÁLEZ MATEO, M. «Las entidades de inspección y control reglamentario. Antecedentes, desarrollo y perspectivas», *Economía Industrial* mayo-junio 1992.

ERANSKINA

1. ERANSKINA

A) ESTATU MAILAKO LEGERIA

Legeria orokorra

- 57/2005 Errege Dekretua, urtarrilaren 21ekoa. Horren bidez, dagoen igogailu-parkearen segurtasuna areagotzeko aginduak ematen dira.
- 1314/1997 Errege Dekretua, abuztuaren 1ekoa. Horren bidez, Europako parlamentuak eta Kontseiluak emandako 95/16/EB Arteztarua aplikatzeko xedapenak ematen dira.
- 474/1998 Errege Dekretua, martxoaren 3koa. Horren bidez Europako Komunitateen Kontseiluak emandako 84/528/EKE Arteztarua aplikatzeko xedapenak ematen dira.
- 2291/1985 Errege Dekretua, azaroaren 8koa, Igogailuak jarri eta mantentze-ko Araudia onartu zuena.
- 1966ko ekainaren 30eko Agindua, Igogailuen Araudiaren testu ikuskatua onartu zuena.

Aldaketak eta araudi teknikoak

- 1987ko irailaren 23ko Agindua. Horren bidez ITC-MIE-AEM-1 Agindu Tekniko Osagarria, Igogailuak jarri eta mantentzeko Araudiari buruzkoa, onartu zen.
- 1981eko azaroaren 16ko Agindua, Igogailuen Araudiko 2. tituluko 1. kapitulua (114., 115., 116. eta 117. artikulua) aldatzen duena.
- 1981eko martxoaren 31ko Agindua, gutxienez eska daitezkeen baldintza teknikoak ezarri eta igogailuen aldizkako ikusketak egiteko arauak ematen dituena.
- 1981eko apirilaren 7ko Agindua, Igogailuen Araudiko 73., 80. eta 102. artikulua aldatzen dituena.
- 1981eko martxoaren 7ko Agindua, Igogailuen Araudiko 65. artikulua zati batez aldatzen duena.
- 1976ko uztailaren 20ko Agindua, Igogailuen Araudiko hainbat artikulua aldatzen dituena.

- 1975eko urriaren 25eko Agindua, Igogailuen Araudiko 22. artikulua aldatzen duena.
- 1998ko irailaren 10eko Ebazpena, Teknologia eta Segurtasun Industrialeko Zuzendaritza Nagusiarena; horren bidez baimena ematen da makina hobian duten igogailuak jartzeko.
- 1997ko apirilaren 3ko Ebazpena, Teknologia eta Segurtasuna Industrialeko Zuzendaritza Nagusiarena; horren bidez makina-gelarik gabeko igogailuak jartzeko baimena ematen da.
- 1992ko apirilaren 27ko Ebazpena, ITC-MIE-AEM-1 Instrukzio Tekniko Osagarrian (Igogailuak jarri eta mantentzeko Araudiarena) aurreikusi ez diren agindu teknikoak onartzen dituena.

B) EUSKADIKO AUTONOMIA ERKIDEGOKO ARAUDIA

- Ebazpena, 2006ko martxoaren 10ekoa, Kontsumo eta Industria Segurtasuneko zuzendariarena, igogailuak zerbitzuan jartzeko prozedura telematikoa arautzen duen Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2006ko martxoaren 9ko Aginduak aipatzen dituen ziurtagirien izapidetzearen eta eskakizunen ezaugarriak zehazten dituena.
- Agindua, 2006ko martxoaren 9koa, Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuarena, igogailuak zerbitzuan jartzeko prozedura telematikoa arautzen duena.
- Agindua, 2005eko irailaren 13koa, Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuarena, etxebizitza familiabakarretan instalatutako igogailuei buruzkoa.
- Ebazpena, 2005eko uztailaren 29koa, Igogailuen Aldizkako Ikuskapenen Eskuliburuaren 5 edizioa onartzen duena.
- Ebazpena, 2002ko uztailaren 15ekoa, igogailuen eskuliburu-eredua onartzen duena.
- Agindua, 2002ko ekainaren 7koa, Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuarena, igogailuen aldiroko ikuskapenak eta igogailuen mantentze- eta zaintza-lanak egiteko prozedura zehazten duena.
- Ebazpena, 1991eko uztailaren 13koa, Administrazio eta Industria Segurtasuneko zuzendariarena, igogailuen arloan indarrean dagoen araudira lotzeko eta egokitzeke aginduak ematen dituena.

Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak *DoKEKO-NOMIAZ* izeneko ildo editorial honetan ekonomia enpirikoa eta aplikatuaren eremuko ikerlanak argitaratzen ditu. Lan hauek, duten neurriagatik eta ez beraien zehaztasunarengatik, artikulu zientifikoaren eta ekonomiako editorialei dagokien lan luzearen bide erdian daude.

Euskal Autonomia Erkidegoko Igogailuen Instalazio eta Mantentze-Lanei buruzko azterlan juridiko-ekonomiko eta lehiako hau Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak lehia sustatzeko egiten dituen ekintzen barnean kokatzen da.

Tradizioz igogailuen instalazioa eta mantentze-lana merkatu ezberdintzat hartu dira, bai produktu-merkatuaren aldetik eta bai merkatu geografikoari begiratuta ere. Hala ere, azterketa zehatzago batek tesi horiek berraztertzea eta, ondorioz, ikuspuntu berri batetik gaiari heldzea behartzen du, hau da, merkatu nagusia (instalazioa) eta bigarren mailako merkatua (mantentze-lana) ezberdintzea, biek elkareragin eta lotura handia izanik.

Azterketan landutako datu ekonomikoek zera erakusten dute: instalazioak EAEn jarduerak mugitzen duen diru kopururaren %30 inguru eta mantentze-lanak %70 gutxi gorabehera biltzen dutela. Gainera, ia enpresa fabrikatzaile guztiak azterketaren helburu diren bi merkatuetan presente daude.

Joera horren atzean dauden faktoreak ugariak dira, bai interes ekonomikokoak, bai teknologia eta lehiakortasun alorretako eskakizunak, baita izaera operatiboa dutenak ere. Faktore horiek bi merkatuen integrazio bertikalaren dinamika progresiboan eragiten dute.

Aipatutako bilakaerak merkatu hauek lehiaren defentsaren ikuspuntutik aztertzea eragin du. Horrela, integrazio bertikala, merkatuan sartzeko oztopoak eta beste alderdi batzuk, hala nola, prezioen eraketa, aztertu dira, proposamen zehatzak eginez, beti ere kontsumitzaile eta erabiltzaileen babesera zuzenduak.



OGASUN ETA HERRI
ADMINISTRAZIO SAILA

DEPARTAMENTO DE HACIENDA
Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

ISBN 978-84-457-2835-2



9 788445 728352

Salneurria: 10 €